

Balio partekatuari

buruzko txostena

ONCEren, ONCE Fundazioaren eta Ilunionen
Laburpen Exekutibo Agregatua

2019

Berdinak

Gaurko. Biharko.

ONCE gizarte-taldea





Aurkibidea

	Presidentearen Gutuna	2
1.	Berdinak eskubideetan: ONCE Gizarte Taldea	5
	1.1 - Bat eginda gehiago gara	
	1.2 - Kudeaketa partekatua eta irekia	
2.	Berdinak enpleguan eta prestakuntzan	9
	2.1 - Datu sozialak eta ekonomikoak	
	2.2 - 22 enplegu egunean desgaitasuna duten pertsonentzat 2010. eta 2019. urteak bitartean	
	2.3 - Ia 500.000 prestakuntza-ordu, inklusiorako palanka	
3.	Berdinak gizarteari egindako ekarpenean	17
	3.1 - ONCE. Joko arduratsu gehiago, inbertsio iraunkor handiagoa	
	3.2 - ONCE Fundazioa. Desgaitasuna duten pertsonen prestakuntza, enplegua, inklusioa.	
	3.3 - Ilunion. Lehenengo bosturtekoa ekonomia sozialaren arloko lidergorako eta sendotasunerako	
4.	Berdinak Garapen Iraunkorraren Helburuetan (GIH)	29
	4.1 - Kalitatezko Hezkuntza (4. GIH)	
	4.2 - Berdintasuna eta Genero-berdintasuna (5. GIH)	
	4.3 - Desberdintasunak murriztea (10. eta 11. GIH)	
5.	Berdinak Agenda 2030 ekimena betetzeko bultzadan	41
	5.1 - Energia iraunkorra; kontsumo arduratsua; planetaren aldeko ekintza (7., 12. eta 13. GIH)	
	5.2 - Berrikuntza (9. GIH)	
6.	Berdinak, inor atzean utzi gabe	49
	6.1 - Kalitatezko lana eta konpromiso ekonomikoa (8. GIH)	
	6.2 - Erakunde solidarioak eta helburuak lortzeko aliantzak (16. eta 17. GIH)	
7.	Berdinak gizarte-iraunkortasuneko etorkizun baterantz	61
	Ganorazko txosten bat	64



Presidentearen gutuna

Adiskide preziatu hori,

Utzidazu ongiatorria ematen ONCE Gizarte Taldearen Balio Partekatuari buruzko 2019ko Txosten honetara. Lerro hauek etxeko itxialdian idazten ari naiz, zorionez etxekoak ondoan, baina arduratuta eta kezkatuta gure belaunaldiek ezagutu ez duten baina ahazten zaila izango den pandemia latz honetan igarotzen ari garen egoeraz.

Egoera honi gure 82 urteko ibilbideko ekintza-palanka handiena erabiliz egin dio aurre ONCE Gizarte Taldeak, banaka zein taldeka: hau ezbeharraren aurrean beti jokatu dugun legez gaudituko dugulako ilusio sendo eta uste irmoarekin, hau da, bat eginda lan eginez, gehituz eta gehien behar dutenekin solidarioak izanez gaudituko dugulakoan.

Lerro hauetan islatzen da ONCE Gizarte Taldeak irmoki itxi zuela 2019ko ekitaldia, bai arlo sozialari bai ekonomikoari dagokienez. Orain ikusita, datuak eta eguneroko errealitateak baino ez dira baina, zalantza barik, islatzen dute pandemiari eta gure ingururako izan dituen ondorioei nolabaiteko bermeak izanda aurre egiteko aukera eman digun egoera bat, zeina, aldi berean, ahalbidetu baitigu gure elkartasuna herritarrei, arlo guztietatik, zabaltzea: ONCEtik, Erakundearen kide diren 72.000 pertsona itsuri baino gehiagori, eta batez ere bakarrik bizi diren 60 urtetik gorako 14.000 nagusiei, estaldura eskainiz, baita 7.500 ikasle itsuri -zeintzuek ikasketak amaitzea lortu baitzuten- eta beste

zenbait egoerari ere; ONCE Fundaziotik, egun horietan funtsezkoa izan zen gizarte-boluntariora bultzatuz eta enpleguari zein prestakuntzari gako gisa eutsiz; eta Ilunionetik, mila kidek -asko desgaitasundunak- gogor eta munduko profesionaltasun handiena erakutsiz lan eginez ospitaleetako eta nagusien egoitzetako arropa garbitzen, ospitalak eta egoitzak garbitzen edota gure hotelak zein bestelako zentroak gaixo eta osasun-langileen erabilerarako utziz.

Gorago esan dizuedan moduan, Koronabirusak, Covid-19k, gure gizartea, gure familiak, gure lagunak eta ezagunak (zeintzuei oroitzapen solidario eta maitekorrena helarazi nahi baitiegu) kolpatu dituen indarraren aurrean hainbat datu aurkezten dizkizuegu; datuak, zifrak, errealitateak baino ez dira, baina, hala ere, horiek eman digute aukera honaino iristeko eta Erakunde gisa berme handiagoekin aurre emateko gure gaurko erronkei (eta Covid-19 hau berealdikoa izan da) baita etorkizuneko ere.

Hori dela eta, kontzeptu bat nabarmentzen dugu behin eta berriz, zeina, duela 80 urte baino gehiago jakin ez arren, gure nagusiek ere gure Erakundearen eta gure eguneroko eginkizunaren izateko arrazoi bilakatu baitzuten: berdinak, gaurko, biharko, enpleguan, hezkuntzan, prestakuntzan, aisialdian, kulturean, kirolean eta bizitzaren arlo guztietan. Berdinak izatea helburu gisa, norberaren desberdintasuna eta pertsona ororekiko begirune handiena oinarri, eskubideetan berdinak izateko.

Langabezia arazo nagusia duen herrialde batean, gogobetetasun handiena dugu langabeziaren ondorioak, neurri batean behintzat, arintzea lortu izana. Izan ere, 2019. urtean 11.340 pertsona atera ditugu langabeziatik, horietako 10.784k desgaitasunen bat dute eta lanpostu horietako 4.918 emakumeek betetakoak dira. Horrez gain, 935 kontratu mugagabe egin dizkiegu ONCEko hainbat agente saltzaileri, guztiak desgaitasundunak izanda.

Utzidazue, mesedez, apur bat atzera begiratzeko kontatu ahal izateko 2010-2019 epealdian ONCE Gizarte Taldeak, guztira, 78.903 lanpostu bultzatu dituela zailen daukatenentzat, 78.903 bizitzako eta benetako inklusioko istorio. Are biribilagoa, baimentzen badidazue: azken 10 urtean desgaitasundun pertsonentzat egunean 22 enplegu sortzeko gai izan gara, eta horrek aski pozik sentiarazten gaitu.

Eta hori guztia egin dugu enplegua sortzeko geure zuzeneko esfortzuaren bitartez baina, batez ere, prestakuntza eta hezkuntzaren bitartez eta desgaitasundun pertsonengan euren talentu eta lanerako gaitasunagatik balioesteko herritarrak ikusi dituzten enpresa eta erakunde askoren elkarlanaren bidez. Haiek gabe ezinezkoa izango zatekeen.

Gu eredu izaten saiatzen gara eta, 2019an, ONCE Gizarte Taldeak 72.693 langile izan zituen, horien % 58k desgaitasunen bat dute eta % 42 baino gehiago emakumezkoak dira. Publikoa ez den laugarren enplegatzaile gara Estatuan eta, desgaitasundun pertsonen dagokienez, lehenengoa Espainian eta munduan. Gure herrialdean lanpostu bat edukitzeko zortea duten 277 pertsonatik batek gurekin egiten du lan.

Etahoriguztia, zuek dakizuen moduan, joko arduratsuakudeatzeko ezagutzen den eredurik onena baliatuz egiten dugu, zeinak aukera ematen baitugu gizarte ekintzara osotasunean bideratzen diren diru-sarrerak eskuratzeko. 2019an, Erakundearen kupoiak eta gainerako loteriak saltzeagatik diru-sarrerak % 4,4 handitu ziren eta Ilunion gure gizarte enpresen salmentak % 5,8; bi datu oso itzaropentsu, zeintzuei buruz informazio zabalagoa ikus baitezakezue txostenean.

Aurrekoari esker ONCE Gizarte Taldeak, 2019an, 265,1 milioi euro bideratu ahal izan zituen zuzenean pertsona itsuei edo bestelako desgaitasunen bat duten pertsonen zuzendutako gizarte-inbertsiora.

ONCEn harrera egin diegu 2019an ikusmena galdu zuten 3.202 pertsonari eta neurrirako arreta eskaini diegu: 131 gida-txakur eman ditugu; 7.495 ikasle itsu edo ikusmen-desgaitasun larria duten ikasle ikasgela ditugu; ONCE Fundazioak 2.116 proiektu onartu ditu desgaitasuna duten pertsonen prestakuntza, laneratze eta enplegurako eta, euri mehearen moduan, 104 milioi euro banatu ditu posible egiteko; azkenik, Ilunionei, 63,8 milioi euro inbertitu ditu hazten jarraitzeko.

Lerro hauek ixten ditut, hain zuzen ere, jakin dugunean ONCEko saltzaileak, ilusiorako gure 19.000 zentinelak, kalera itzultzen ari direla jarduerarik gabe eta itxialdian igarotako hiru hilabeteren ostean; eta gure enpresak eta ONCE Fundazioa pixkanaka-pixkanaka eta astiro-astiro berriro lotzen ari zaizkiola lanari. Etorkizunari begirako ziurgabetasuna handia da baina ONCE Gizarte Taldearen eta bere jendearen konpromisoa are handiago da.

Kalera irten gara berriro 46,5 milioi kupoiko bilduma eskuan, Espainiako herritar bakoitzeko bat, guztioi eskerrak emateko #LallusiónPuedeConTodo/ Ilusioak dena lortzen du aldarria ahoan. ONCE Gizarte Taldea osatzen dugunok ondo baino hobeto dakigu, zeren eta behin eta berriro egiten baitugu posible. Eta kaleak berreskuratuko ditugu eta etorkizuna berriro irabaziko dugu, gizarte osoarekin partekatuz.

Miguel Carballeda Piñeiro
NCE Gizarte Taldeko presidentea

“Azken 10 urtean desgaitasundun pertsonentzat egunean 22 enplegu sortzeko gai izan gara, eta horrek aski pozik sentiarazten gaitu”



1

BERDINAK eskubideetan: ONCE Gizarte Taldea

ONCE Gizarte Taldeak, oro har, lehentasun ditu pertsona itsuen eta bestelako desgaitasuna duten pertsonen erabateko inklusioa eta bizimodu independienterako sarbidea Espainian eta munduan – kontzeptuaren zentzu zabalenean-; horretarako, bereziki, hezkuntzan, prestakuntza etengabea, enpleguan eta irisgarritasunean oinarritzen da. Giltzarri horietan finkatuta, berrikuntza, taldekako lana, aukera-berdintasuna, desgaitasunarekin, hirugarren sektorearekin edota ekonomia sozialarekin lotutako asoziazionismoaren aldeko bultzada, eta bazterketa-arriskua duten pertsonetikiko elkartasuna dira gure lan egiteko moduak, zeintzuetan egunero ahalegin handia egiten baitugu “Berdinak” aldarria ahoan, desberdintasuna errespetatuz baina guztiok eskubideetan berdinak izatea helburu hartuta.

1.1 Bat eginda gehiago gara

1938an Espainiako itsu-talde bat batu zenean – eta une honetatik bertatik errepikatzen dugu batasun hitza-ONCE eratzeko, Espainiako pertsona itsuen etorkizuna guztiak batuz bakarrik lortuko zutelakoan egin zuten. XX. mendearen hasierako ONCE hori jaio zen – 1935ean abiatzeko asmoa izan eta 1938an lortu zuen- eta, garai

hartan jadanik elkartzen zituen, batzen zituen, zozketak eta xorteak antolatzen lehen urratsak ematen ari ziren pertsona itsuen zenbait talde.

Eta Erakundearen historian, berori eratu baino askoz lehenago ere, mantra moduko bat izan diren bi kontzepturen pean egin zuten: batasuna gehiago izateko eta gehiago batzeko; eta ilusioa aurrera egiten jarraitzeko. Bi kontzeptuok, gainera, sendotu egin dira lanean eta esfortzuan emandako 82 urte hauetako garapenean. Horrela erakusten du gaur egun ONCE Gizarte Taldearen zigiluak, zeinak, orain, ONCEren, ONCE Fundazioaren eta Ilunionen ekarpena biltzen baitu. Batasuna eta integrazioa esan nahi duen batuketa bat da, elkarrengandik hurbilago egotea herritarrentzat onuragarriago izateko prest egoteko.

ONCE Gizarte Taldeadugud desgaitasuna duten pertsonentzako gizarte-zerbitzuen eta enpleguen Espainiako eta munduko sortzailerik handiena. Hasierako uneetatik jomuga izan du, berdintasun-aukeraren printzipio pean, pertsona itsuen eta desgaitasundunen inklusio bete lortzea. Horretarako, gizarteari modu iraunkorrean balio erantsia ematen dion eredu bat baliatzen du, ekonomia soziala bultzatu eta bertan liderra den eredu bat eta errentagarritasun ekonomikoa eta soziala bateragarriak eta, are gehiago, desiragarriak direla erakusten duen eredu bat, alegia.

Hiru ekintza-alorretan gauzatzen du bere jarduera:



ONCE

Erreferente da pertsona itsuen edota ikusmen desgaitasun larria duten pertsonen benetako inklusioa eta autonomia bizitzaren arlo guztietan lortzen. Joko arduratsuaren eremuko produktuak kudeatu eta merkaturatzeko eredu baten bitartez finantzatzen da, kontrol publikoaren pean eta diru-sarrera guzti-guztiak gizarte-zerbitzuetan berrinbertituz.



ONCE Fundazioa

Erakundeak 1988an eratutako tresna desgaitasunen bat duten pertsonen kooperazioa eta gizarte-inklusioa sustatzeko, prestakuntza, enplegua eta irisgarritasun unibertsala palanka gisa erabiliz.



Ilunion

ONCEren eta ONCE Fundazioaren enpresa arloko ekimen guztiek bat egin dute ekonomia sozialaren liderra den palanka sozioekonomiko honetan. Bost negozio-eremu handi hauetan jarduten du: zerbitzuak; hotel- eta ospitale-alorrekoa; aholkularitza; soziosanitarioa; eta merkaturatzea.

1.2 Kudeaketa partekatua eta irekia

ONCE izaera sozialeko Zuzenbide Publikoko Korporazio gisa definitzen dute bere estatutuek beraiek eta Estatuako indarreko araudiak. Hau da, ekonomia sozialeko entitate berezi bat da, bere funtzionamendua barne-demokrazian oinarritzen duena

eta Erakundeko kide diren pertsona itsuei bide ematen diena bete-betean parte har dezaten Erakundearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaketarako hauteskunde-prozesuetan.

Demokrazian gauzatutako kudeaketa-modu hau ONCEren berezko ezaugarria da eta 1982tik aurrera aukera ematen du Estatuak eskatutako eta ONCEren esku utzitako hainbat gizarte-zerbitzu egiteko eredu bat garatzeko, beti ere, ONCEko kide diren pertsona itsuei eta ikusmen-urritasun larriak dituzten pertsonen zuzenduta.


Pertsona horientzako gizarte-ekintzak bizitzaren etapa eta arlo guztiak betetzen ditu, haurtzaroan hasi – non hezkuntza barneratzailearen alde lan egiten den-, eta helduaroan bukatu arte, non norberaren autonomia, lan-inklusioa, irisgarritasun unibertsala eta teknologia, aisialdi eta jardura kultural eta kirol-arlokoetarako sarbidea, besteak beste, sustatzen diren. Xede horiek guztiak erdiesteko, Erakundeak berezko nortasun juridikoa du, eta erabateko gaitasuna du bere jardura gauzatu eta antolatzeko.

1982ko urtarrilaren 19an lehenengo hauteskunde demokratikoak egin zirenetik eta handik aurrera lau urtean behin egiten direnean, ordezkaritza-organoak sortu dira hauteskundeetan (Kontseilu Nagusia eta Lurraldeko Kontseiluak), eta beti partaidetza handia izan da galdeketa guztietan.

Hauteskundeetatik Kontseilu Nagusia sortzen da, gobernu- eta ordezkaritza-organo gorena. Eginkizun du Erakundearen egonkortasun instituzionala eta finantzarioa zaintzea bere xede sozial eta solidarioa betetze-zereginen: pertsona itsuen edota bestelako desgaitasunen bat duten pertsonen giza-eskubideen eta erabateko gizarteratzearen alde aritzea.

ONCEk norabide horretan betetzen duen eginkizuna Estatuaren kontrol eta gainbegiradapean gauzatzen da Babesletza Kontseiluaren bitartez, zeinak gardentasunaren eta baliabideen kudeaketa zuzenaren alde jarduten baitu. Izan ere, diru-sarrera guztien helburua da Erakundearen iraunkortasuna bermatzea eta gizarte-eginkizunetan inbertitzea.

Kontseilu Nagusiaren menpe daude Gizarte Taldearen jarduera multzokatzen deneko hiru arlo exekutiboak: ONCEren Zuzendaritza Nagusia (joko arduratsuaren kudeaketa eta afiliatuentzako gizarte-zerbitzuak); ONCE Fundazioa (desgaitasuna duten pertsonentzako elkarlanerako eta gizarte-inklusiorako); eta Ilunion barruan bildutako enpresa sozialak, ekonomia sozialean arloko liderrak eta errentagarritasun soziala eta ekonomikoa posible eta desiragarriak direlako frogapena.





2

BERDINAK enpleguan eta prestakuntzan

ONCE Gizarte Taldearentzat, enplegua oro har eta desgaitasundun pertsonen enplegua bereziki, jomuga bat, xede bat da berez, ez da zerbait lortzeko tresna. Lan-inklusihoa da palankarik onena benetako inklusiorako, zeren eta ez baitago inklusiorako bide hoberik bizimodu independentea zertzeko aukera ematen duen enplegu duina baino. Erakundea gogor aritzen da egunean-egunean desgaitasundun pertsonentzako bitziza-aukerak sortzeko enplegu duinaren bitartez, eta, era berean, zeregin handia gauzatzen du gizarteari begira eta, batez ere, enpresei, erakundeei eta instituzioei begira pertsona horien enplegua errealitate bilakatu dadin. Asko egin da aurrera, baina desgaitasundun pertsonen jarduera-ezari buruzko datuak latzegiak dira eta, hortaz, oraindik ere bete gabeko asmoa da.

2.1 Datu sozialak eta ekonomikoak

ONCE Gizarte Taldearen (ONCE, ONCE Fundazioa eta Ilunion) guztizko enplegu-kopurua 2019.urtea ixtean 72.693

pertsonakoa izan zen eta horrek esan nahi du ekitaldian 1.300 zuzeneko lanpostu sortu direla.

Guztizkotik, 41.945 langile (% 58) desgaitasunen bat duten pertsonak dira, pertsona horientzat enplegu-emaile handiena Espainian eta munduan. Eta nabarmentzekoa da emakumeek 30.661 lanpostu betetzen dituztela.

Desgaitasunen bat duten langileei dagokienez, azpimarratzekoa da lan-munduratzeko zailtasun handienak dituzten pertsonentzako sortutako enplegua: 3.433 langilek desgaitasun intelektuala dute; 3.952 lanpostu desgaitasun psikosoziala (lehen buruko gaixotasuna zeritzona) duten langileek betetzen dituzte; eta 3.357 langilek entzuteko desgaitasun sensoriala dute.


Zuzenean sortutako lanpostu horietaz gain, ONCE Gizarte Taldeak 11.340 lanpostu bultzatu ditu, enplegurako egindako kudeaketari eta bitartekaritzari esker; horietako 10.784 desgaitasundun pertsonak bete dituzte eta 4.918 emakumezkoek.

Barneko enplegua, desgaitasunaren eta sexuaren arabera sailkatuta

A	Desgaitasunik ez duten pertsonak	30.748	% 42
B	Desgaitasunen bat duten pertsonak	41.945	% 58



A	Emakumezkoak	30.661	% 42,2
B	Gizonezkoak	42.032	% 57,8

Desgaitasunak


A	Pertsonaitsuak, ONCEn afiliatuta	6.136	% 14,6
B	Ikusteko bestelako desgaitasunak	2.128	% 5,1
C	Desgaitasun fisikoa	22.939	% 54,7
D	Entzuteko desgaitasun sensoriala	3.357	% 8,0
E	Desgaitasun intelektuala	3.433	% 8,2
F	Desgaitasun psikosoziala	3.952	% 9,4

Datu horiek aintzat hartuta, esan dezakegu 2019.urtea amaitzean Espainian lan egiten zuten 277 pertsonatik batek ONCE Gizarte Taldetik egiten zuela. Datu horrek 2018koa hobetzen du, zeren eta urte hartan 281 pertsonatik bat zenbaitu baikenuen. 2019an ONCE Gizarte Taldearen enplegua Espainian % 3,6 hazi da; gure herrialdeko enplegua datu globaletan, aldiz, % 2,1.



ONCE Jokoak

ONCEren loteria-produktuen diru-bilketa 2019an eta horren bilakaera (milioi euro eta salmenten %)



Gutzizko salmenten banakapena eta erabilitako kanalaren arabeko bilakaera (milioi euro)




	2018	2019
A Kanal nagusia (agente saltzaileak)	1.959,9	2.030,4
B Kanal fisiko osagarria	166,4	182,5
C Internet bidezko kanala	34,6	42,4
D Loteria-produktuen guztizko salmentak	2.160,9	2.255,3

ONCE Fundazioaren magnitude ekonomikoak

ONCE Fundazioaren diru-sarrerak euren jatorriaren eta jomugaren arabera.


Diru-sarrerak, 2019 (milioi euro)



A	ONCE	67,7
B	Europako Gizarte Fundoa	29,9
C	Dohaintza pribatuak	1,2
D	Bestelako diru-sarrerak*	5,4
		104,2

* Barnean ditu EGFkoak ez diren 2,8 milioiko diru-laguntzak; zenbait diru-laguntzen baliogatze eta itzultzetik datozen 1,5 milioi; eta lankidetzeta-hitzarmen, dohaintza, finantza-arloko sarrera eta bestelakoetan sorburua duten 1,1 milioi.

Gutzizko gastuak, 2019 (milioi euro)



A	Enplegu eta Prestakuntza Plana	76,4
B	Irisgarritasun Plana	26,9
C	Administrazio gastuak	0,8
		104,1


Ilunionen magnitude ekonomikoak

Ilunionen salmenten bilkaera eta konpainia nagusien araberako banaketa.

Salmenten (milioi euro)



Konpainia ngusien salmentak



A	Facility Services	% 42,51
B	Garbitegiak	% 18,00
C	Hotels	% 11,94
D	Contact Center	% 5,71
E	Retail	% 4,70
F	Industria Zerbitzuak	% 3,96
G	Soziosanitariaoa	% 3,63
H	Automobilgintza	% 2,15
I	Gainerakoa	% 7,39

2.2 22 enplegu egunean desgaitasundun pertsonentzat 2010etik 2019ra bitartean

Lehenago esan dugun bezala, ONCE Gizarte Taldearen arlo guztientzat enplegua bera da xedea: arrakasta lortzea da desgaitasundun pertsona bat lanpostu batera heltzen den bakoitzean, bizitza-aukera bat dela jakitun baitira.

ONCE da saltzaile guztiak berezko enpleguak dituen munduko joko-operadore bakarra, hau da, besteren kontura aritzen diren saltzaileak dituen. Eta kontzeptu horretantxe, enplegu inklusiboan, hain zuzen, du sorburua Erakundearen motorrak, zeina joko sozial eta arduratsuan ardatzen baita eta, ondoren, ONCE Fundazioaren kudeaketa baitu euskarri eta Ilunion adibide nabarmen. Oro har, enpleguaren sorrera benetako inklusio-palanka eraginkorra delako frogapena. Ez dago inklusio-bide hoberik soldata duin bat baino.

Arestiko gure historian bizi izan ditugun egoera zailak eta krisiak gorabehera, Erakundeak berrikuntzen bidetik jarraitzen du enplegu-arloan eta, beraz, desgaitasundun pertsonentzako enplegu-hobien bila eskulana intentsiboagoa eta beharrezkoagoa deneko eta, era berean, pertsona horien egoerara eta beharretara hobeto egokitzen deneko sektoreetan.

Eta XXI. mendea eta hamarkada hau enpleguaren aldeko apustu irmoa bilakatu ditugu 78.903 lanpostu sortu baititugu desgaitasundun pertsonentzat 2010 eta 2019 bitartean,

bai zuzenean bai gure kolaboratzaileak eta prestakuntza zein enplegu arloetan egiten dugun kudeaketa oinarri hartuta. Egunean 22 enplegu bultzatu ditugu desgaitasundun pertsonentzat azken 10 urteotan: gure aurkezpen-gutunik onena.

Desgaitasuna duten pertsonentzat hirugarren entitateetan bultzatutako enpleguaren bilakaera 2010-2019 epealdian (pertsona kopurua)

	Erakundeak			ONCE Gizarte Taldea guztira
	ONCE	ONCE Fundazioa	Ilunion	
2010	392	6.161	0	6.553
2011	409	5.435	0	5.844
2012	341	5.080	63	5.484
2013	316	6.312	132	6.760
2014	357	6.966	66	7.389
2015	351	7.079	253	7.683
2016	329	7.494	728	8.551
2017	345	8.901	328	9.574
2018	380	10.234	474	11.088
2019	373	9.159	445	9.977
Azken 10 urteetan	3.593	72.821	2.489	78.903

Azken hamar urteotan desgaitasundun pertsonentzat egunean 22 lanpostu sortu izanak ederki laburbiltzen du egindako ahalegina eta gure lorpen handiena islatzen du. Izan ere, zenbaki bakoitzaren atzean lanpostu duin bat eskuratu eta gizarte-inklusiorentz pauso erraldoia egin duen pertsona bat dago.

Pauso horrek, gainera, “kutsatze” efektua eragiten du herritarrengan eta, bereziki, ekoizpen-ehunean, modu horretan ezagutzen baitu eta jabetzen baita pertsona horien talentuak ekarpena egiten diela, eta ekarpen handia gainera, euren enpresa-errealitateei. Hori guztia estuki lotzen zaie berdintasun-aukerari eta pertsona horien eskubideen betetzeari.



2.3 1a 500.000 prestakuntza-ordu, inklusionarako palanka

ONCE eratu zenetik, prestakuntza etengabea izan da, eta oraindik ere bada, lehiakortasun-bermea eta ezinbesteko elementua langileen garapen- eta profesionalizazio-ibilbidean, batez ere desgaitasundun langileen kasuan. Pasa den mendeko 1950eko hamarkadan jadanik ONCEk bazeuzkan enpresak eta prestakuntza pertsona itsuentzat, baita karamelu-lantegietan eta bestelakoetan aritzen ziren emakume itsuentzat ere, eta horrela erakusten zuen prestakuntza ezinbestekoa zela inklusionarako.

Modu horretan laguntza irmoa ematen da ONCE Gizarte Taldea osatzen duten entitateen helburuak lortu eta iraunkortasuna ahalbidetzeko. 2019an 212 prestakuntza-ekintza gauzatu ziren, 41.259 bertaratze izan ziren eta, guztira, 288.451 prestakuntza-ordu jaso zituzten langileek, ONCEko langileak bakarrik kontuan hartuta. Horretarako inbertsioa 1.593.690 €-koa izan zen.

Bestalde, Ilunioneek urteko planak abiarazi zituen honako prestakuntza-ildo hauek garatzeko: lanposturako beharrezkoak diren ezagutza teknikoak; enplegugarritasuna hobetzeko abilezia sozialak eta pertsonalak; enpresa arduratsua familia arloan eta enpresa osasungarria izeneko ereduarekin lotutako hainbat alderdi; zibersegurtasuna eta kultura korporatiboa. Ildo horretan, 195.221 prestakuntza-ordu eman ziren 2019an.

ONCE Fundazioaren prestakuntza-orduak 2019an 1.307 izan ziren, ondorengo arloei buruzko 190 prestakuntza-ekintzatan banatuta: hizkuntzak; prestakuntza tekniko espezializatua; prestakuntza abilezien alorrean; enpresa arduratsua familia arloan izenekoarekin eta aniztasunaren kudeaketarekin lotutako prestakuntza; eta Segurtasun eta Osasun alorretako prestakuntza. Era berean, apustu irmoa egin zen eraldaketa digitalaren inguruko prestakuntzaren alde eta urtean zehar hainbat ekintza komun egin ziren ONCE Fundazioa eta Inserta Empleo e Innovación erakundeentzat (besteak beste, Digital Strategy eta zibersegurtasuna izan ziren gaiak).

Horrez gain, ONCE Gizarte Talde osoaren Erakunde Kulturari buruzko ezagutza bultzatzen jarritu da, langile guztiei zuzendutako onlineko prestakuntzaren bitartez.





3

BERDINAK gizarteari egindako ekarpenean

ONCE, izatez, soziala da eta printzipio argi bat du sorburuan: pertsona itsuak edota desgaitasundunak gainerako herritarrak bezalakoak izatea eta, horrelakoak diren aldetik, banaka, lehenengo, eta familia handi bateko kide gisa, ondoren, euren aletxoak jarri ahal izatea gizarte moderno, solidario eta inklusiboak garatzeko.

Atzean, oso urrun, geratuak dira ongintza-ereduak eta, betidanik, Erakundeak herritarren zoria partekatu nahi izan du, beren alboan, klase pasiboaren kontzeptua gaindituz inklusio- eta, nor bere mailan, ekarpen-kontzeptuetan kokatzeko.

Hartara, ONCE Gizarte Taldeak lan-inklusioko eredu sozial bat eratzen du, zeinarentzat loteria-produktuen eta Ilunion enpresen kudeaketa arduratsua baita diseinatutako palanka bere aktibo erabilgarri guztiak gizarte-ekintzara bideratzeko. Horren bitartez ONCEk estaldura eta gizarte-zerbitzuak ematen dizkie Erakundearen afiliatu diren 72.231 pertsona itsuei edo ikusteko desgaitasun larria duten pertsoneri; loteria-produktuen salmentatik datozen diru-sarreraren % 3 desgaitasunen bat duten gainerako pertsonentzako elkartasun bilakatzen da ONCE

Fundazioaren bidez, zeinak, orobat, Europako Gizarte Fondotik (EGIF) datozen ekarpenak batera kudeatzen eta areagotzen baititu. Ilunionez ixten du ereduak: lehiakortasun ekonomikoa ikuspuntu sozialean oinarrituta.

3.1 ONCE. Joko arduratsu gehiago, inbertsio iraunkor handiagoa

ONCE jaio zen pertsona itsuen gizarte-estaldura bermatzeko eta amaitu zen desgaitasunen bat, oro har, duten pertsonen gizarte-inklusioko munduko eredu handiena izaten, estatu-mailako loteria-emakida baten kudeaketa arduratsuan oinarrituz.

Hori dela eta, ONCEren loterien salmentak esanahi bikoitza eta banaezina dauka: alde batetik, gizarte-alderdia, zeinaren bitartez baliabideak itsuen eta ikusteko desgaitasun larria duten pertsonen erabateko inklusioko erabiltzen baitira; eta, bestetik, kudeatzaile arduratsuari, gizartearekin eta kontsumitzaileekin konpromisoa duen operadoreari dagokion alderdia.



ONCEk 2019an % 4,4ko hazkunde nabarmena lortu zuen loteria-produktuen salmentatik etorritako diru-sarreretan eta 2.255 milioi euro eskuratu zituen. Hobekuntza horren zutabeak izan dira produktuen eta salmenta-bideen dibertsifikazioa eta joko-eremuaren egituraren modernizazioa. Horrela, funtsezko hazkunde ekonomikoa erdietsi du Erakundearen zeregina modu iraunkorrean gauzatu ahal izateko: baliabide gehiago enplegu eta gizarte-ekintza gehiago eta hoberako.

Loteria arduratsuak, bihotz solidarioa

ONCE beti egoten da adi bere jarduera komertzialetik ondorioztatzen den erantzukizunari eta, horregatik, joko arduratsuan eta kontsumitzailearen babesean ardatzen du bere konpromisoa. Kezka horrek eraman zuen ONCE Loterien Munduko Elkarteak (LME) eta horren sail europarrak (European Lotteries, EL) joko-segurtasunari buruz ezarritako estandarrak Espainian barneratu zituen lehen operadorea izatera eta estandar zorrotz horiek bermatzen dituzten zigiluak eskuratzea.

Horrez gain, Erakundeak gizartearekiko eta merkatuarekiko erantzukizun jakin bat hartua du bere gain eta gardentasun-eta fidagarritasun-printzipioetan gorpuzten du; izan ere, printzipio horiek gidatzen dute diseinatu, ekoiztu, publizitatea egin eta merkaturatzeko prozesu guztien diseinua eta bermatu eta babesten dute horien integritatea segurtasunari eta benekotasunari dagokienez.

ONCEk Informazioaren Segurtasunaren Kudeaketa Sistema (ISKS) bete-betea dauka eta horren bidez bermatu nahi du joko-produktu bakoitzaren ezarpenarekin zerikusia duten prozesu guztien erabateko gardentasuna (diseinuan,

ezarpenean, merkaturatzean, zozketan eta abarretan), baita kontsumitzaileen datu pertsonalen babesa eta pribatutasuna ere. ONCEren joko-sistemen Segurtasunerako Batzordea da segurtasun-politikak diseinatzeko dituen artezkaritza-organoa, eta, goi-zuzendaritzaren inplikazioaren erakusgarri, zuzendari nagusia du buru.

Kudeaketa sistema hori (ISKS) 2005ean hasi zen ezartzen eta urte bat geroago WLA-SCS arauaren arabera ziurtagiria lortu zuen. Loterien Munduko Erakundeak zenbait kontrol estandarizatu oinarri hartuta diseinatu du araua eta horien bidez alderdi ugari egiaztatzen dira: sistemaren egonkortasuna; arriskuekiko esposizioa; eta jarraitutasun-politiken ezarpenaren efizientzia. Era berean, eta, batez ere, arauak informazio-elementuen integritatea, eskuragarritasuna eta konfidentzialtasuna babesten ditu. 2009an ONCEren ISKSk batu egin zuen segurtasun arloko arau estandarizatu zorrotzera, ISO 27001 araua alegia. Bi ziurtagiriok berrituz joan dira gaur arte eta, zehazki, 2018an, segurtasun-estandar guztien ziurtapen osoa berritu zen eta 2019an, arauak xedatutakoari jarraituz, alde bateko ziurtapena egin da.

Estrategia honen azken xedea da bermatzea gure loteria-produktuen komertzializazioarekin lotutako prozesu guztien segurtasuna eta gardentasuna; modu horretan, kontsumitzaileek guran jarritako konfiantzak, zortzi hamarkadan zehar irabaziz joan denak, gure bereizgarri izaten jarrai dezan eta gure produktuak eskuratzen dituzten kontsumitzaile guztien eskubideak bermatuta gera daitezten.

2009an osatu zen Erantzukizun Sozial Korporatiborako eta Jokoaren Kudeaketa Arduraturako lehenengo Plana 2015ean

Joko Arduraturako Programa bilakatu zen eta 2019an Joko Arduratuaren alorreko Jarduketan Plangintza onartu zen. Ekitaldi horretantxe, hain zuzen, onartu zen lehen aldiz Joko Arduratuaren Jarduerari buruzko urteko Memoria.

ONCEren Joko Arduratuari buruzko Politikak zehazten ditu Erakundeak kontsumitzaileen babesarako diuen konpromisoak eta aldian-aldian gaurkotzen da zenbait atal berri txertatzeko: alde batetik, intereseko taldeekiko elkarreraginean ikasitakoak eta, bestetik, ikuskaritza-lanetan iradokitako hobekuntzak. Joko Arduratuaren Batzordea arduratzen da jardueren etekin-maila eta eraginkortasuna koordinatu, garatu eta ebaluatzeaz.

ONCEk kontrolak ezarri ditu loteria-produktuen diseinutik merkaturatzeko unera arte, publizitate arduratsua eta adin txikikoei eta jokatzea debekatuta duten pertsonen saltzeko berariazko debekuen ezarpena tartean direla, halako moldean non loteria-produktuen gehiegizko kontsumorako jarrerak edo joerak bultzatu edo sustatu litzaketan elementuak txikiagotzen diren. Adibidez, egiten den analisi nagusiak ebaluatzen du merkaturatzen diren edo merkaturatzean aldatuak diren produktu guztien arriskua, arrisku horren maila ONCEren Joko Arduratuaren Batzordeak onartutako definizioarekin bat datorren egiaztatzeko asmoz.

Loteriaren Internet bidezko salmentari dagokionez, kontrol-tresnak jartzen dira kontsumitzaileen eskura (adina egiaztatzea, borondatezko eta derrigorrezko mugak, jokoan ematen den denborari buruzko informazioa, borondatezko bazterketa...). Horrez gain, www.juegosonce.es-en berariazko

“ Helburua da gure jokoan merkaturatzearekin lotutako prozesu guztien segurtasuna eta gardentasuna bermatzea ”

atal bat dago Joko Arduratsuari buruz eta bertan ondokoak azaltzen dira: autodiagnostikorako testa; jokoari buruzko aholkuak; FEJARrekin harremanetan jartzeko datuak aholkuak jaso ahal izateko; gurasoen kontrolerako tresnak eta sariaz gozatzeko zenbait gomendio.

Joko Arduratsuaren alorreko jarduera-ildo orokor horietaz gain, 2019an ondoko ekintzak gehitu ziren, zeintzuen amaiera izan baitzen European Lotteries (EL) erakundearen estandarren berziurtapenerako 2019ko ikuskaritza globalean % 98,78 kalifikazioa lortzea:

- **ONCEren Joko Arduratsuari buruzko Nazioarteko IV. Lehiaketaren proiektu irabazlea aurkeztea.**
- **EL-k eta WLA-k Joko Arduratsuari buruz antolatutako urteko mintegian txostengile gisa parte hartzea.**
- **“Responsibility in Gaming” Biltzarraren lehenengo ediziora bertaratzea.**
- **European Lotteries (EL) erakundearen Joko Arduratsuaren lan-taldean parte hartzea.**
- **Lankidetzan aritzea FEJARrekin “Zorizko jokoa gizartean. Nazioarteko ikuspegi bat.” Ikerketa Zientifikoko IV. Jardunaldietan.**
- **Lankidetzan aritzea Jokoa Antolatzeko Zuzendaritza Nagusiaren Joko Arduratsuaren Aholkularitza Kontseiluarekin (DGOJ).**
- **Joko Arduratsuaren arloko prestakuntza enplegatuentzat (agente saltzaileentzat batez ere) eta formakuntza gizarte-zerbitzuen kudeatzaile izango direnentzat (Proyecta ekimena) eta Kanal Fisiko Osagarriko (CFC) kideentzat.**

- **Erakunde barneko aldizkarietan enplegatuentzako artikuluak argitaratzea eta, zentzu berean, STren bitartez mezuak bidaltzea agente saltzaileei eta Kanal Fisiko Osagarriko kideei.**
- **Produktu guztiak probatu dira arriskuak neurtzeko tresnaren bitartez eta 1,68ko maila lortu da (arrisku-maila onargarriko produktu-zorroa).**
- **www.juegosonce.es webgunearen kanpo-ikuskaritza EL-ren Joko Arduratsuaren estandarren ataleko parametroak erabiliz, %99,5 eko emaitza lortu delarik.**
- **Publizitate-zerbitzuak egiten dituzten enpresei derigorrean betearaztea Joko Arduratsuari buruzko publizitaterako gidalerroak.**
- **Mezu komertzial guztiak edota aurretik inprimatutako produktuetan agertzen diren guztiak erantzukizun-mezuak eramatea “+18” eta “Jokatu arduratsu” hitzen pean.**
- **Berariazko kupoiak merkaturatzea Joko Arduratsuaren arloan sensibilizatzeko helburuz.**
- **Lankidetzan aritzea FEJARrekin hainbat ekintzatan, baita kontsumitzailearen babesarekin lotutako beste zenbait elkarterekin, hala nola HISPAC00Pekin eta FADekin, ere.**

228,5 milioi euro bete-betean pertsona itsuentzat edo desgaitasundun pertsonentzat

Loterien salmentagatiko diru-sarreretan 2019an izandako hobekuntza berri ona da zeren eta berehala pertsona itsuentzako, ONCEren bitartez, eta gainerako desgaitasundun pertsonentzako, ONCE Fundazioaren bitartez, gizarte-inbertsioaren hangiatotez bilakatzen baita.

Gauzak horrela, 2019an salmentek izandako % 4,4ko hazkundeak aukera eman zuen desgaitasunera zuzendutako gizarte-inbertsioa 228,5 milioi eurora areagotzeko. Azken ekitaldietako kopururik handiena izan den horri esker inbertsioaren erritmoa irmotu, mantendu eta igo ahal izan zen honako ekintza hauek gauzatuz:

- **Estaldura globala Erakundearen afiliatu diren 72.231 pertsona itsuentzat.**
- **Neurrirako arreta espezializata 2019an ONCEn afiliatu berri diren 3.202 pertsona itsuentzat.**
- **Guztira 4,6 milioi euro osatzen duten 4.643 prestazio ekonomiko ematea pertsona itsuei.**
- **6,2 milioi euro zuzentzea lanpostua egokitzera, ikasketetara edo prestakuntzara pertsona itsu edo gor-itsuentzat.**
- **Arreta pertsonalerako 37.907 zerbitzu afiliatuentzat.**
- **Berariazko zerbitzuak helduentzat: errehabilitazioa (8.507); prestakuntza braille sistemari eta informazio-zein komunikazio-teknologiei buruz (6.637); laguntza psikosoziala (3.498); gizarte-ongizatea (7.353); eta enplegurako laguntza (1.620).**
- **Arreta integrala 7.413 ikasle itsu edo ikusteko desgaitasun larria duten ikaslerentzat, horien % 99,4 hezkuntza integratuan.**
- **50 txosten begitako patologiaren gaineko aholkularitza genetikoaren alorrean.**
- **2.969 pertsona gor-itsuri arreta ematea FOAPSen bitartez, 89.594 bitartekaritza-ordu emanda.**

- **Gida Txakurraren ONCE Fundazioak 131 txakur eman ditu aurten eta lurralde osoan 1.050 erabiltzaile ditu.**
- **95 berrikuntza-proiektu garatzea teknologia irisgarriaren eta laguntza teknikoaren alorretan.**
- **4.537 pertsonak jaso zituzten boluntarioritza-zerbitzuaren onurak, jardunean dauden 2.853 boluntarioei esker, zeintzuek 268.920 zerbitzu-ordu egin baitzituzten.**



Horrez gain, “Zure alboan beti” programa abian jarri zen koordinatzeko ONCEko zerbitzuek eta profesionalak bakardade-egoerak jasateko aukera gehiago dituzten biztanle-taldeekin egiten dituzten esku-hartze espezifikoak. Zeregin garrantzitsu horretarako, beharrezko helburuez, garapen-ildo ez, ekintzez eta lanabesez hornitu zen programa.

2019an afiliatuek bitzita betea eta autonomia eduki ahal izan dute gizarte-zerbitzuen 1.591 profesionalen osatutako talde bati esker; taldean arlo ugari bildu dira: irakasleak; psikologoak; gizarte-langileak; errehabilitazio-teknikoak;

tifloteknologia- eta braille-irakasleak; gizarte-zerbitzuen arloko kudeatzaileak; animatzaile soziokulturalak...

Kupoi bat oinarri duen ondoko grafikoak erakusten du Erakundearen diru-sarreraren erabilera: sariak osatzen dute gutzizkoaren % 54; saltzaileen soldatek eta gizarte-kargak eta jokoaren zeharkako gastuak (publizitatea, mantentze-zereginak, produktua, Kanal Fisiko Osagarria eta Internet) % 33,6; pertsona itsuei edota desgaitasundunei zuzendutako zuzeneko gizarte-inbertsioak % 10,1 gaitzen du; eta bestelako gastuak % 2,3 osatzen dute.



% 54	Sarien ordainketa
% 33,6	Soldatak eta jokoaren zeharkako gastuak
% 10,1	Zuzeneko gizarte-inbertsioa
% 2,3	Bestelako gastuak

3.2 ONCE Fundazioa. Prestakuntza, enplegua, inklusioa desgaitasundun pertsontzat

ONCEk 1988an eratu zuen desgaitasundun pertsonen inklusiorako munduandagoentresnarik handiena eta finantzen ikuspuntutik hornidura onena daukana, loteria-salmenten diru-sarreraren % 3 zuzenenan jasotzen baitu: Desgaitasundun Pertsonek Gizarte Inklusiorako eta Lankidetzarako ONCE Fundazioa. Kudeaketa irekiko erakundea da eta bere Patronatuan, zeina gobernu-organo gorena baita, ordezkariak daukate pertsona horiek biltzen dituzten erakunde nagusiek, baita zenbait instituziok ere.

ONCEren zuzeneko ekarpenarekin batera, zeinak bultzada nabarmena izan baitu azken ekitaldietan loteria-salmentek izan duten hobekuntza dela-eta, ONCE Fundazioaren eskutan dago Bruselatik, Europako Gizarte Fondotik (EGIF), datozen diru-sarreraren baterako kudeaketa. Izan ere, 2000. urtetik geroztik Europako Gizarte Fondoarekin duen itun garrantzitsuari esker ONCEk gizartean duen eragina biderkatu dezake. EGIFen 2014-2020 programazio-epealdian, Fundazioak kudeatu ditu Gizarte Inklusiorako eta Gizarte Ekonomiarako Programa Operatiboak - POISES- eta Gazte Enplegurako Programa Operatiboak -POEJ- eta zeregin horretan estatus bikoitza izan du, Entitate Onuraduna eta Bitarteko Erakundea baita. Programa horiek egikaritu eta ahalik eta gehien aprobetxatzeko, ONCE Fundazioa, programen onuraduna den aldetik, Inserta Empleo erakundearekin batera aritzen da.

Hasieratik, ONCE Fundazioak hiru eginahal-eremu nagusi finkatu zituen: prestakuntza; enplegurako sarbidea eta irisgarritasun unibertsala. Helburu horiek jomuga, urtero proiektu-deialdi bat abiarazten du alderdi horietan lagungarri diren eta baldintza jakin batzuk betetzen dituzten ekimenak kofinantzatzeko. 2019an, aurkeztutako 2.731 proiektuetatik 2.116 onartu ziren. Lurralde osora iristen den euri mehe bat, dinamizatzaile eta gizarte-inklusiorako palanka ahaltsua bilakatzen dena.

Onartu ziren proiektuen % 64,8k enplegua eta enplegurako prestakuntza dituzte jomuga eta gainerako % 35,2 irisgarritasun unibertsalari lotutako ekintzetara daude zuzenduta. Onetsitako eskaeren % 27,6 pertsona fisikoek egindako eskaerei dagozkie eta laguntzen % 59,8 desgaitasun alorreko entitateetarako izan dira; azkenik, gainerako % 12,8 berezko programetara zuzendu dira.






Modu horretan, 104,2 milioi euroko zuzkidura baliatuz, ONCE Fundazioak bere eginkizun behinena betetzen du desgaitasuna duten pertsonen erabateko inklusioa lortzeko. Ekitaldi bakoitzean finantziario-iturri nagusia ONCEren jokoak merkaturatzearen ondorioz eskuratutako diru-sarrera gordinen % 3tik dator. Ekitaldi honetan kopuru hori 67,7 milioi eurokoa izan da. Horri gehitu behar zaio Europako Gizarte Fondotik (EGIF) datozen diru-sarreraren (29,9 milioi) kogestioa, zeina funtsezko ituna izateaz gain, komunitatearen esfortzuak gure herrialdean nola biderkatu eta emaitza nabarmenak nola lortu erakusten duen adibidea baita. Halaber, eta gutxiago









“Onartutako proiektuen % 64,8 enplegua eta enplegurako prestakuntzara daude zuzenduta eta gainerako % 35,2 irisgarritasun unibertsalarekin lotutako ekintzetara”

nabarmentzen den modu batean, bestelako neurrietatik ere jasotzen dira diru-sarrerak (enplegu-zentro bereziei ondasunak eta zerbitzuak erosiz desgaitasuna duten pertsonak kontratazeari buruzko araua betetzeko aukera ematen dute) edo beti zure lankidetzat jasotzeko prest dagoen “Colabora” (<http://colabora.fundaciononce.es/>) microwebgunearen bidez egindako dohaintzetatik.







Hori guztia ahaztu barik Espainian desgaitasuna duten pertsonen asoziazionismoa eta gizarte osoaren sentsibilizazioa bultzatzeko asmoa duen alderdi nabarmena. Horretarako, lankidetzan aritzen da Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordearekin (Cermi) eta elkarrizketari zein harremanei ematen die hasiera jomuga dituen xedeak lortzeko garrantzizkoak diren erakunde, pertsona fisiko, instituzio eta bestelako organizazio guztiekin.

Hona hemen 2019an izandako lorpen eta datu garrantzitsuenetako zenbait:

-  **64,8 milioi enplegura eta prestakuntzura zuzenduta.**
-  **41 lankidetzat-hitzarmen prestakuntza-programetan parte hartzen duten unibertsitateekin eta arlo akademikoko bestelako entitateekin.**
-  **“Desgaitasundun ikasleen errendimenduari buruzko azterlana” eta “Hezkuntza inklusiborako lehenengo orientabide jardunaldiak” hastea.**
-  **“Campus inklusiboak, mugarik gabeko campusak” programaren VIII. edizioa.**
-  **ERASMUS+ ekimenean “European Network of Inclusive Universities” izeneko proiektua, unibertsitate inklusiboen sare bat eratzekoa.**

-  **“Aukera bat talenturako” beka-programaren VI. edizioa, milioi erdi euro baino gehiagoko aurrekontuduna. 413 eskaera 104 bekatarako: masterra, nazioarteko mugikortasuna, doktoretza, ikerketa eta ikasketa eta kirola.**
-  **“ONCE-CRUE Fundazioa” praktikak egiteko beka-programaren III. edizioa: 273 onuradun praktika akademiko ordainduak egiteko.**
-  **“UNIDIVERSIDAD” programaren III. edizioa: adimen-desgaitasuna duten 345 gazte, 23 unibertsitateetan 2019-2020 ikasturte akademikoan.**
-  **50 gaztek lortu zuten “Atzerrian hizkuntza ikastaroak” egiteko laguntza-programaren II. edizioaren onura.**
-  **“Letizia erregina inklusiorako programaren” I. edizioa, desgaitasundun pertsonen hezkuntza-egoera hobetzeko. 225 beka beteta.**
-  **Hezkuntza Bikaintasunerako programak 14 beka eman zituen desgaitasuna duten gazteentzat bikaintasun-programak baliatuz, hala nola “Mundu Batuko Ikastetxeak”, “AcciónXChange”, “AcciónxPeace”, eta “EDUCALAB zientzia-kanpamenduak”. Horrez gain, Alumni beka-programa sustatzen jarraitzen dugu Nafarroako Unibertsitatean, Carlos III.a Unibertsitatean eta IESEn. Bekak espediente oneko ikasleei daude zuzenduta.**
-  **35,2 milioi irigarritasun- eta berrikuntza-arloetara zuzenduta.**
-  **39 irigarritasun-hitzarmen zenbait erakunde publiko eta pribaturekin, besteak beste:**
 - “Done Jakue Bidea Irigarri. Zure bidaidea”.
 - “Irigarritasun arloko normalizazio teknikoaren eta diseinu unibertsalaren sustapena Espainian, European eta nazioartean”.

- “Profesionalentzako online ikastaroak diseinatzea” ONCE Fundazioa kanalean, UNED Abierta atarian”.
- “Irisgarritasun unibertsalerako eta pertsona guztientzako diseinurako irizpideen inklusioa Unibertsitatean”.
- “Onlineko plataforma irisgarritasun unibertsala sustatzeko”.
- “Irisgarritasuna lanpostuetan”.
- “Ikerketa eta irisgarritasun unibertsalaren adierazleak”.

-  **Aurrera egiten jarraitu da honako proiektu hauetan: CILIFO (Baso Suteen Aurkako Borrokarako Zentro Iberikoa), EDUCA4ALL, SAFERUP, ...**
-  **46 ikerlan egin ziren hainbat arlotan, besteak beste: “Irisgarritasuna eta gizarte- berrikuntza osasun-arretan. IKTak osasun-zerbitzuen erabilera eraginkorrerako erraztaile gisa”.**
-  **Inserta Empleok 281.590 desgaitasundun pertsona zituen bere enplegu-burtsan izena emanda ekitaldiaren amaieran.**
-  **Laguntza berezia genero-indarkeriaren biktima izandako 1.760 desgaitasundun emakumerentzat, enplegua horietako 148rentzat eta lanerako 602 orientabide-zerbitzu.**
-  **Hainbat ekimen enplegua bultzatzeko, besteak beste: Academia Digital, ADOP Empleo PROAD y Trainers Paralímpicos, EmcA, Games de Empleo ‘Poder Extra’, Por Talento...**
-  **ODISMET, Espainiako Desgaitasunaren eta Lan Merkatuaren Behatokia, (www.odismet.es), desgaitasundun pertsonen lan-merkatuan duten egoerari buruzko datuen berri izateko erreferente.**


3.3

Ilunion. Lehenengo bosturtekoa lidergorako eta sendotasunerako

ONCE Gizarte Taldeko enpresa sozialen marka gisa bateratu eta ozta-ozta bost urte igaro direnean, Ilunion da zerbitzuak ematen dituen Espainiako enpresa handiena, eta lan-merkatuan erreferentziako enplegu-emailea, bereziki desgaitasunen bat duten pertsonentzat. Enpresa-talde sozial, lehiakor eta iraunkorra da.

Ilunionen enpresa-proiektua errealitate jakin bati erantzuna emateko asmoz jaio zen: desgaitasuna duten pertsonen lanpostu bat eskuratzeko dituzten zailtasunak. Hori dela-eta, konpromiso soziala, lehiakortasuna eta errentagarritasun ekonomikoa dira Ilunionen jardueraren ardatzak. Izan ere, bere jarduerak egunero-egunero erakusten du hazkunde ekonomikoa eta inklusiboa batera gertatu ahal direla eta oparotasuna, aukerak eta balio partekatua sortzen dituztela gizarte osoarentzat.

Ilunionek jarduera zabala eta dibertsifikatua garatzen du 50 negozio-lerro baino gehiagotan, zeintzuk bost arlotan banatzen baitira (zerbitzuak; hotel- eta ospitale-arloa; aholkularitza; soziosanitarioa; eta merkaturatzea). Horren guztiaren ondorioz, eskaintza integrala, malgua, norberaren neurrikoa eta, eskulanari dagokionez, intentsiboa eskaintzeko aukera dauka.



“Ilunion sendotu egin da Espainian zerbitzu-emaile den lehenengo enpresa sozial gisa eta lan merkatuko erreferente den enplegutzaile gisa, batez ere desgaitasunen bat duten pertsonentzat”







Lan-zentroyen % 53,3 Enplegu Zentro Bereziak (CEE) dira, hau da, langileen % 70ek baino gehiagok desgaitasuna duteneko zentroak izateagatik, legeak ekonomia sozialeko entitate-moten artean jasotako zentroak. Ezaugarri horrek balio bereizgarri eta lehiakorra gehitzen dio Ilunionen eskaintzari, zeren eta bazkide eta bezero izan daitezkeenei aukera ematen baitie bere balioak eta enpresa- nahiz gizarte-proiektua partekatzeko eta, aldi berean, laguntzen baitie desgaitasuna duten pertsonen enpleguari buruzko indarreko araudia betetzen.


Ilunioneak 492 lan-zentro ditu Espainia osoan zehar. Horieta 262 Enplegu Zentro Bereziak dira (% 53,3). Gaur egun, nazioarteko garapenaren aldeko apustua dauka egina funtsezko hazkunde-palanka gisa; modu horretan esportatu nahi du desgaitasuna duten pertsonentzat eta bazterketa-arriskuan dauden bestelako gizataldeentzat enplegua sortzen duen enpresa sozialaren eredu.

Negozio-ereduak, hortaz, errentagarritasuna eta inklusioa bateratzen ditu, negozio-arlo guztietan pertsonen eta lehiakortasunaren aldeko apustu irmoa exijitzen duen erronka bat.

2019an 978,8 milioi euro fakturatu zituen, aurreko urtean baino % 5,8, eta 61,9 milioi euroko ebitda izan zuen. Ilunionen zuzeneko langileen kopurua 37.907 pertsonakoa izan zen eta horien % 40,5ek desgaitasunen bat dute. Horixe da, hain zuzen, markaren eta ordezkatzeko dituen balioen – Espainiako gizartean eta nazioartean txalotuak- elementu bereizgarria.

Taldeak 63,8 milioi euro inbertitu zituen modernizatzeko, hazkunde- eta zabalkuntza-prozesuetan 2019an. Hona hemen mugarri behienak:

-  **Ilunion IT Services-ek Sermalogic erosi eta jarduera-arloa osatu du “fields services” negozio-lerroaren bitartez.**
-  **Ilunioneak Taxileón eta Logiraees enpresen % 50 erosi du eta RAEEs birziklapen-sektorean sendotu du bere lekua.**
-  **ONCE Gizarte Taldea; Erantzukizun eta Gobernu Korporatiboari buruzko Merco sailkapenean lehenengo postua eta zazpigarrena Enpresei buruzko Merco sailkapenean.**
-  **Ilunion Hotels-ek 30 urte bete ditu.**
-  **Ilunion Retail-ek bere 100. denda zabaldu du Meridako ospitalean.**
-  **Ilunion Hotels-ek erreserbak egiteko motor bat abiarazi du bere webgunean.**
-  **Ilunioneak 35 milioi euroko mailegu bat jaso du IC0ren eskutik.**
-  **Ilunioneak eta Repsol Fundazioak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu dute gizarte-eragineko proiektuak garatzeko helburuz.**
-  **Ilunion Seguridad-ek sektoreko lehen protokoloa sinatu du genero-indarkeriaren aurka.**
-  **Ilunion Salud-ek eta ONCE Fundazioak irisgarri egin dute Madrilgo Klimaren Munduko Goi-bilera (COP25).**





4

BERDINAK Garapen Iraunkorraren Helburuetan (GIH)

ONCE Gizarte Taldea bideratzen duten gidalerroek iragana markatu dute, gaur egun dihardute eta, batez ere, etorkizunerako norabidea seinalatzen dute desgaitasundun pertsonen berdintasunerantz eta egiazko inklusiorantz aurrera egiteko. Xede horretarako, funtsezko ekintza-tresnak ditugu eskura, zeintzuek, une honetan, Nazio Batuek bultzatutako Garapen Iraunkorraren Helburuekin (GIH) bat egiten baitute, eta, ahal den neurrian, 17 konpromisoetako zenbaitekin lotuta aurrera egiten duen ekintza sozial eta ekonomiko baterantz bideratzen baitira. Ildo horretan, batez ere, pertsonekin eta eskubideekin estu-estu lotuago dauden konpromisoak ditugu iparorratz, baina, datozen belaunaldiak buruan, ahaztu barik Agenda 2030 osotasunean betetzea, inguratzen gaituen guztiaren kudeaketari eta planetaren zainketarekin dugun harremanari dagokienez.

4.1 Kalitatezko hezkuntza.

4. GIH

Ez dago berdintasun-egoeran gauzatutako kalitatezko hezkuntza baino eragile hoberik gizarteei modernitaterantz

eta etorkizunerantz aurrera eginarazteko. Kontzeptu hori oinarri, asko dira burutzen ditugun ekimenak ingurune tolerante eta inklusiboak sortzeko eta zeregin horretan 80 enpresa, zentro akademiko, RSEko erakunde, udal, unibertsitate eta besteren laguntza izaten dugu euren jarduera guztietan irisgarritasuna eta enpleguagarritasuna berma ditzaten.

Lankidetzazko hitzarmenak eginak ditugu autonomia-erkidego guztietako kontseilaritza eskudunekin ikasleen hezkuntza-inklusioari, irisgarritasun unibertsalari eta aukera-berdintasunari laguntzen dieten politiken garapena etengabe bultzatzeko eta inor bazterrean ez uzteko.

ONCEk hezkuntza-estaldura eskaintzen die ikusteko desgaitasuna duten 7.413 ikasleri, autonomia-erkidegoko hezkuntza-zerbitzuekin elkarlanean (% 99,4 hezkuntza integratuan). Harrigarria da, baina egindako lan onaren erakusgarria da ikusteko desgaitasun larria duten ikasleen eskola-porrota % 5 baino txikiagoa dela, Estatuaren batz bestea, aldiz, % 18koa da eta Europar Batasuneko (EB) % 11 ingurukoa. Argi erakusten dute zifra horiek ikasleek, Erakunde profesionalak lagunduta, egindako esfortzu handia.

Horretarako, Erakundeak lanean dihardu ikasle itsuek edo ikusteko desgaitasuna dutenek ikasgeletan erabiltzen dituzten hezkuntza-baliabide digitalerako eta lanabes teknologikoetarako irisgarritasuna bermatzeko.








2019. urtean zehar ondoko ekimenak gauzatu dira:

- **Lankidetzaren Administrazio Publikoekin eta hezkuntza- zein teknologia-arloko enpreekin (HP, Asseco, eta abar).**
- **ACCEDO taldearen (Hezkuntza-arloko eduki digitaletarako ONCEko Iriagarritasun Taldea) partaidetza teknologiak hezkuntzan duen erabilerari buruzko lan-talde batean, ONCE Fundazioarekin eta Microsoft-ekin batera.**
- **ACCEDO Taldearen lankidetzaren Madrileko Liburu Azokan edo hezkuntza-arloko material digitalei buruzko UNE 71362 araua garatzeko Batzorde Teknikoa, besteak beste.**
- **Aplikazio Iriagarrien 2019ko Katalogoa eguneratzea.**
- **Etengabe butzatzea hezkuntza-inklusioko, irisgarritasun unibertsala eta aukera-berdintasuna sustatzen dituzten politikak, eta, orobat, horien konplimentua aldarrikatzea.**
- **Lehen Hezkuntzako 3. eta 4.mailako ikasleen balioespen teknologikoa IKFak hezkuntza-arretarako berariazko taldeetan duten erabilerari eta horien beharrei buruz.**
- **Teknologiari buruzko lehenengo Campusa DBHko 1.maila eta Batxilergo bitarteko ikasle itsuentzat, Hezkuntza Baliabideen Bartzelonako Zentroan gauzatu eta industria-teknologiaren arloan aritzeko.**



Bestalde, ONCEko Fisioterapiari buruzko Unibertsitate Eskola, Madrileko Unibertsitate Autonomoari atxikia dagoena, prestigioetsuenetako bat da estatu- zein nazioarte-mailan, eta zorrotasunari heldu dio herrialdeko profesionalik onenak sortzeko, hadicapetik bikaintasunera.

Hezkuntza-inklusioa

Aldi berean, ONCE Fundazioak proiektu jakinak gauzatzen ditu desgaitasuna duten gazteak unibertsitatera hel daitezen eta euren potentzial osoa garatu dezaten. Horretarako, hainbat arlotan jarduten du: campusak zentzu guztietan irisgarriagoak izan daitezen laguntzen du, beka eskaintzen ditu eta eztabaida eta hausnarketa bultzatzen ditu unibertsitatearen eta desgaitasunaren arteko harremanari buruz, ondoko bitartez, besteak beste:

-  **41 hitzarmen sinatu ditu zenbait unibertsitateekin eta arlo akademikoko bestelako entitateekin (zifra horrek handitzen du sinatutako hitzarmen-kopurua: guztira, 205).**
-  **906 beka eman ditu adimen-desgaitasuna duten ikasleentzat (campus inklusiboak, hizkuntzak, graduondokoak, nazioarteko mugikortasuna, doktoretza-ikastaroak...).**
-  **ONCE-CRUE Espainiako Unibertsitateak Fundazioaren Praktikak egiteko 273 Beka esleitu dira jasotako 714etatik. Espainia osoko 76 unibertsitateetan eta UNEDi atxikitako zentrotan gauzatu dira.**
-  **“Campus Inklusiboak, Mugarik gabeko campusak” programaren VIII. edizioa. 9 campusetan egin den edizio honetan 14 unibertsitatek eta 151 ikaslek hartu dute parte.**
-  **ERASMUS+ proiektu berria, 3 urterako Europako 56 unibertsitate eta erakunderekin (Desgaitasunaren Foro Europarra –EDF–; Finlandiako Ekialdeko Unibertsitatea; Portoko Unibertsitatea (Portugal); Triesteko Unibertsitatea (Italia); Lublineko Politeknikoa (Polonia); Murtziako eta**

Sevillako Unibertsitateak; eta Madrileko Unibertsitate Autonomoa).









-  **“Aukera bat Talenturako” beka-programaren VI.edizioa. 413 eskaera jaso ziren eta 104 beka eman dira zenbait modalitateetan banatuta: masterrak; nazioarteko mugikortasuna; doktoretza-ikastaroak; ikerketa; eta ikasketa eta kirola.**
-  **“Hizkuntza Ikastaroak Atzerrian” egiteko laguntza-programaren II. edizioa. 130 eskaera jaso ziren eta 50 beka banatu ziren ingelesez, frantsesez edota alemanieraz hitz egiten direneko Europako herrialdeetan ikasteko.**

Kultura eta kirol irisgarriak

Berriz ere gizarte modernoak buruan, ezin dugu inor atzean utzi gure ondasun preziatuenetako bat gozatzeko orduan: kultura. Artera sarbide izatea pertsona guztien inklusioa osatu eta hobetzeko beste modu bat da, bai desgaitasundun pertsonen sortutako arte-erakusketen bitartez, bai gizarte-mugak hausten dituzten edukien sorrera eta hedapen bitartez. Eta, era berean, kirolaren gozamenean eta praktikan. Izan ere, horixe da gaur egungo herritarren beste ezaugarri bat: kirol-praktikak, neurri berean, eskaitzen dituen aisiarako eta osasunerako sarbidea bermatua izatea, baita lehiaketa osasuntsurako ere.

2019an 5.597 ekitaldi antolatu dira animazio soziokulturalaren eta kirolaren arloetan eta 136.481 pertsonak hartu dute parte horietan.

Hona hemen 2019. urtean gauzatutako kultura-ekitaldi nabarmenenak:

-  **XVII. Antzerki Bienala Extremaduran, bertan pertsona itsuz osatutako 10 antzerki-konpainiak hartu zuten parte eta 16 emanaldi egin zituzten.**
-  **Tiflos Literatura Sariak: Poesia Sariaren 32. edizioaren epaia; Ipuin Sariaren 29.arena eta Eleberri Sariaren 21.arena, 1.000 lan baino gehiago aurkeztuta.**
-  **9.535 afiliatuk erabili dute ONCEren Liburutegi Digitalaren zerbitzua eta y 9.924k deskargatu dituzte film audiodeskribatuak Audesc bideotekatik.**
-  **ONCEren Museo Tiflologikoak 17.598 bisitari izan zituen eta aldi baterako 5 erakustaldi eta 2 erakusketa ibiltari antolatu ziren museoaren fondoak erakusteko.**
-  **ONCEk modu aktiboan jarraitu du lotuta Liburuzainen eta Liburutegien Elkarteen Nazioarteko Federazioarekin (IFLA), baita Inprimatutako Testuak erabiltzeko desgaitasuna duten pertsonentzako liburutegiak biltzen dituen Atalarekin (LPD). Azken horretan, ONCEk txosten bat aurkeztu zuen Europako zuzentarau berriak ezarritako irisgarritasun-betekizunei buruz.**
-  **“El Mundo Fluye/ Mundua badabil”, ONCE Fundazioaren erakusketa ibiltaria Espainiako zenbait hiritan ibili da eta “Cambio de Sentido/ Zentzu Aldaketa” espazioak hiru erakustaldi osatu ditu desgaitasundun artisten artelanak sustatu eta saltzeko.**
-  **Lankidetzta Prado eta Natura Zientzietako Museoeekin, horietako gelak eta erakusketak irisgarri egiteko.**
-  **ONCE Fundazioaren “Ilusioa kutsatzen duten ipuinak” haur-liburutegiak “Baltasar, ikertzeko jaioa” gaixotasun arraroak gai dituen ipuina gehitu dio bere fondoari.**

ONCEk berariazko fondo bat dauka afiliatuek proposatutako hainbat motatako proiektu kultural eta artistikoak finantzatzeko: musika lanen grabazioa, partiturak edo musika-liburuak argitaratzea, eta abar.

Kirola

Lehiaketa-kirolaz gain, ONCEk funtsezkotzat jotzen du oinarrizko kirola, kirol-inklusioaren etorkizunerako eta ikusmen desgaitasuna duten txikitxoek garapenerako ekarpen garrantzitsua. Horretarako, ikasgela inklusiboetan egiten ditugun lankidetzaz eta ekintzaz gain, sentsibilizazio-jardunaldi ugari egiten dira gaztetxu desgaitasundunak baztertuak izan ez daitezen kirol-ikasgeletan edo oinarrizko taldeetan. Erakundeak hainbat kirol-topaketa sustatu ditu ikasleitsuak, euren familiak eta gainerako kideak biltzeko.

Lehiaketa-kirolari dagokionez, Itsuentzako Kirolen Espainiako Federazioak. (FEDC) 137 jarduera antolatu zituen lehiaketa-mailan eta, bertan 3.407 kirolari itsuk edo ikusmen-desgaitasun larridunek hartu zuten parte eta 2.049 pertsona aritu ziren sostegu-zereginetan (gidak, entrenatzaileak eta erakundeko langileak).

2019an aipatzekoak dira zenbait kirol-jarduera, hala nola Xakeko Espainiako XXVIII. Banakako Lehiaketa, 2 FEDC Kopa, eski alpinoko 14 urtez azpikoentzako III. Jardunaldiak eta 5 jokalariko eta aretoko futboleko Espainiako lehiaketak.

Bestalde, 2019an, Federazio honek berriro zuen ONCE Kirol Eskolen IV. Topaketaren programazioan eta garapenean egiten duen lankidetzta. Lau diziplina hauek ardaztu zuten jarduera:

xakea; areto-futbola; judoa eta goalball-a. Horrez gain, kirol-abilidadeekin lotutako bestelako jardueraz gozatzeko aukera ere egon zen.

ONCE Fundazioari dagokionez, Gurpildun Aulkiko Saskibaloiko Eskola du oinarizko kirola sustatzeko bide; halaber, Fundazioak Gurpildun Aulkiko Saskibaloiko ONCE Fundazioa liga babesten du, baita gurpildun aulkiko saskibaloiko CD Ilunion taldea, txapeldun dotorea eta munduko talderik onenetakoa, ere. Orobat, Helburu Paralinpikodun Kirola Laguntzeko Planaren (ADOP Plana) babesleeta bat da.

Nabarmentzekoa da Kirol Inklusiboari buruz ekainean Francisco de Vitoria Unibertsitatean egindako I. Mintegia. Unibertsitateko irakasleei egon da zuzenduta eta esperientziak, teknikak eta lanabesak partekatzea izan du helburu desgaitasuna duten ikasleen partaidetza errazteko hezkuntza-etapa guztietan jarduera fisikoan eta kirol-jardueran aritzeko eskoletan.

Jarraitzeko asmoa duen mintegi honek Rural Kutxa- RGA Aseguruak Taldearekiko elkarlanean izan du sorburu.

ADOP Empleo Planaren esparruaren baitan, Trainers Paralinpikoak programak aurrera jarraitu zuen motibazio-hitzaldiak eta prestakuntza tailerrak enpresa-sareari eta hezkuntza- zein gizarte-arloei eskainiz. 2019an burutu ziren 72 ekintzetara 4.488 pertsona bertaratu ziren; modu horretan, 2015eko maiatzean aurkeztu zenetik 297 ekitaldi gauzatu dira eta, guztira, 28.800 partaidek baino gehiagok hartu dute parte.





4.2

Berdintasuna eta genero-berdintasuna.

5.

Duela 82 urte ONCE jaio zenean, helburu argi bat eta mezu ozen bat izan zituen jomuga, lerro hauetan zehar ibiltzeaz gain, horien arteko lotura direnak: berdinak. Kontzeptu bat baino gehiago da, jokaera eta ekintzarako mezu bat da eta ezin du atzean utzi genero-berdintasuna bezalako funtsezko kontzeptua.

Ildo horretan, ONCE Gizarte Taldeak Aukera Berdintasunerako Behatoki bat dauka bere baitan. ONCEko Kontseilu Nagusiko Berdintasun, Giza Baliabide, Erakunde Kultura eta Inklusio Digitalari buruzko presidenteordetzari atxikitua dago Behatokia eta horrek argi erakusten du ematen zaion garrantziaren norainokoa. Behatokiaren jardueraren ardatza

da berdintasun-arloan abiarazten diren ekimenak bultzatu eta berorien segimentua egitea, betiere, berdintasuna modurik zabalenean ulertuta.

Horren harira, Behatokiak urtero jarduerarako Urteko Txosten bat onartzen du, zeinek datu kuantitatibo eta kualitatiboak jasotzen baititu emakumeak hainbat arlotan dituen egoera eta bilakera sakon ezagutzeko, emakume itsu afiliatuak izan, bestelako desgaitasundunak izan nahiz desgaitasunik izan ez. Tresna horrek, bost urteko epe baterako, urte arteko konparazio bat erakusten du, halako moldez non aukera ematen duen ebaluatutako alderdi bakoitzaren bilakaera ezagutu eta aztertzeko. Era berean, ezinbesteko abiapuntua finkatzen du aurrera egitea ahalbidetuko duten ekimen eta estrategia berriak abiarazteko.

Berdintasunerako Behatokia

2019an ONCE Gizarte Taldearen Aukera Berdintasunerako Behatokiaren Osoko Bilkurak hiru bilera izan ditu eta Arloen Arteko Koordinaziorako Talde bat eratu da. Talde horren xede nagusia da informazioa partekatzea eta hiru Arlo Exekutiboen jokabidea, berdintasunari dagokionez, homogeneizatzea, abiarazten diren ekintzetan, barneko aldean zein kanpoko aldean, urrunago heltzeko asmoz.

Bilera horietan CERMIren ordezkari batek hartzen du parte eta horrek bide ematen du Behatokiaren eta plataforma horren artean lankidetzaz estua ezartzeko, baita CERMI Mujeres Fundazioarekin ere. Era berean, ONCEren zenbait ordezkari CERMIren eta lehenago aipatutako Fundazioaren organoetan duten partaidetzaren bitartez ere gauzatu egiten da esandako harremana.

Orobat, nabarmendu behar da elkarrizketa eta lankidetzaren bizkor erta erraza daudela Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioarekin baita horren menpeko organoekin ere (batez ere, Berdintasunerako Estatuko Idazkaritza eta Genero Indarkeriarako Gobernu Ordezkaritza). Nabarmenezkoak dira, bereziki, lehenago aipatu diren Estatuko Idazkariarekin eta Gobernu Ordezkariekin izaten diren bilerak eta topaketak.

2019an, ONCEk berdintasunarekin lotutako hainbat irudi jarri ditu zenbait kupoitan, besteak beste: Soldata Berdintasunaren Eguna (otsailaren 22a), Emakumearen Nazioarteko Eguna (martxoaren 8a) eta Emakumearen Aurkako Indarkeria Deuseztatzeko Eguna (azaroaren 25a). Guztira, 15 milioi kupoik baino gehiagok aldarri egiten diete herritarrei, txoko guztietan, indarkeriaren gaitzaren aurka eta berdintasunaren alde.

Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko “Benetakoak gara, zergatik ez gaituzte ikusten?” mahai-ingurua egin zen baita partaidetza handia lortu ere. Era berean, ekitaldi honetan ekimen berri bat abiatu da, lau hilez behingo mintegiak gauzatzea, hain zuzen. Horietan generoari lotutako berdintasunarekin zerikusia duten gaiak hartzen dira hizpide.

Eta, halaber, ONCE Fundazioak, Insertaren ekintza lagun, berdintasuna bultzatu zuen genero-indarkeriaren biktimak izandako emakume desgaitasundunentzat. Enplegu-burtsan, guztira, 1.760 emakumek eman dute izena, horietako 602k hainbat zerbitzu egin zituzten lan-orientabidearen arloan, eta, azkenean, gizarte-gaitza honen biktima izandako 148 emakumek lortu zuten lanpostu bat.

4.3 Desberdintasunen murrizketa; hiri eta komunitate iraunkorrak.

10. eta 11. GIH

ONCEren zereginaren ardatza da Espainian desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, eta eginkizun horretan saiatu da azken 82 urteotan. Baina beti izan du gogoan pertsona horiekiko elkartasuna munduko edozein lekutara zabaltzea eta horrela egiten ahalegindu da. Era berean, bere ibilbidean komunitate iraunkorretarantz hurbiltzea izan du helburu, horietan lortu ahal baitute inklusioa, eskubideen ikuspututik, katebegi ahulenek – kasu gehienetan desgaitasundun pertsonak dira horiek.

Hori dela-eta, ONCEren eginkizuna gero eta gehiago zabaltzen da, modu solidarioan, munduko gainerako lekuetan zehar. ONCE Gizarte Taldea hainbat arlotako nazioarteko erakunde garrantzitsu ugarian dago presente eta beraietan hartzen du parte, betiere, desgaitasuna “leitmotiva” izanda.

2019an, Fundazioak eutsi egin dio Nazio Batuen Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean (ECOSOC) duen estatus aholku-emaile bereziari eta, era berean, jarraipena eman die hainbat erakunde aldeaniztunekin dituen aliantzei, hala nola Mundu Bankuarekin, Council on Foundations (COF) izenekoarekin, Garapenerako Amerika Latinoko Bankuarekin (CAF) eta Garapenerako Amerikarteko Bankuarekin (GAB). Azken horrekin nabarmenezkoa da Inserta Latinoamerikako 4 herrialdetan nazioartekotzeko proiektua elkarrekin finantzatzeko ekimena.

“2019a oso garrantzitsua izan da ekonomia sozialerako, zeinak Europar Social Economy Europe (SEE) baitu ordezkari, ONCE Fundazioa zuzendaritza-organoetatik hartzen du parte plataforma horretan”

Halaber, Ilunionen bitartez, berriro hartu du parte German Marshall Fund-en Transatlantic Inclusion Leaders Network (TINL) programan. Erakunde horrekin batera, gainera, Madrilen ekainean gauzatu ziren Lidergo Inklusiboari buruzko jardunaldiak antolatu ditu aurten. Horietan parte hartu zuten desgaitasundun eta desgaitasunik gabeko ia hogeita hamar gaztek, Espainiako eta Europako gainerako herrialdeetako hainbat erakundetatik etorritakoak. Azkenik, ONCE Fundazioak harrera egin die Nippon Foundation-en ordezkariari eta ONCE Gizarte Taldearen eredu aurkeztu.

2019an jarraipena eman zaio Ezagutza Kudeatzeko ONCE Fundazioaren Proiektuari eta Inserta erabat finkatuta dago. Urte honetan zehar, beste zenbait ekimeni ere eman zaie jarraipena eta Irakurketa Kluba abiarazi da, literaturari buruzko iritziak eta

gustuak partekatze eta ikasteko interesa dutenei zuzenduta. Halaber, Showroomaren IV. edizioa egin da, berrikuntza gai hartuta.

Europa mailan, 2019an, ONCE Fundazioak elkarlanean jarraitzen du Fundazioen Zentro Europarrarekin. Halaber, parte hartu zuen European Foundation Center (EFC) erakundearen 30.urteurrena ospatzeko antolatu ziren ekitaldietan baita gertaera hori zela-eta abian jarri den blogean ere. Horrez gain, EFCrekin batera, Batzorde Europarreko Investigación&Innovación erakundeko Zuzendaritza Nagusiak teknologiararen arloan antolatu zituen jardunaldietara bertaratu zen ONCE Fundazioa eta Moedas mandatariak antolatutako

gosarirarako gonbitea jaso genuen; bertan, elkarrizketa egin genuen mandatariarekin ikerketa eta garapenerako politikei buruz eta fundazioen sektorearekiko elkarlan handiagoaren beharri buruz. EFCKo Desgaitasunaren Sare Tematikoaren bitartez (DTN), zeinak ONCE Fundazioa buru baitu, saio bat antolatzen lagundu zen hainbat gairen gainean aritzeko: hurrengo Desgaitasunerako Estrategia Europarra (2020-2030); Garapen Iraunkorraren Helburuak (GIH); eta desgaitasuna eta generoa.

2019. urte hau oso garrantzitsua izan da ekonomia sozialerako, zeinak Europar Social Economy Europe (SEE) baitu ordezkari. ONCE Fundazioak zuzendaritza-organoetatik hartzen du parte plataforma horretan.

Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialari (CESE) dagokionez, nabarmendu behar dugu izan dugun zeregin aktiboa guretzat interes handikoak diren ondoko bi irizpenen sorreran. Alde batetik, desgaitasundun pertsonen eskubideei buruz EBK 2020-2030 epealdirako atondutako agendaren idazketan; bertan, gure ekarpen guztiak aintzat hartu dira (enpleguari, irisgarritasunari, ESKri, justiziarako sarbideari buruzkoak) eta, bereziki zaindu dira Enplegurako Zentro Berezien eta enpleguaren gaineko alderdiak. Bestetik, “Europako Parlamenturako hauteskundeetan desgaitasundun pertsonen duten benetako boto-eskubidea” hizpide duen irizpena; zeinak berariaz jasotzen baitu ONCEk Espainian duen jokabidea Europako gainerako herrialdeetarako eredu gisa.

2019an, Enpresa eta Zerbitzu Publikoen Zentro Europarreko (CEEP) kide garen aldetik, Gizarte Gaien Batzordean parte hartzen eta lan-taldeetan zein proposatutako kontsultetan lankidetzan aktiboan aritzen jarraitu dugu.

Kontseilu Nagusiarekin elkarlanean, EASPD-Desgaitasuna duten pertsonentzako zerbitzu-emaileen elkarte europarrarekin bat egin dugu. Izan ere, elkarte hori da desgaitasundun pertsonentzako zerbitzuak egiten dituzten agente eta elkarte nazionalek Europan duten euritako nagusia.

Era berean, azpimarratzekoa da Espainian egitekoa den Inpaktu Inbertsiorako Batzorde Aholku-emaileko (Spain NAB) kide bilakatu dela ONCE Fundazioa. Organo horrek Espainia ordezkatzan du Global Steering Group for Impact Investment (GSG) erakundearekin.

Halaber, Espainian zein Europan sendotu dira hainbat erakunde publiko eta pribaturekin ehundutako aliantzak, kooperaziorako sare transnazionalak erabiliz, hala nola Ekonomia Sozialeko sarea eta Desgaitasuna eta Disability Hub Europe GIHetarako. Ildo horretan, sarearen aurkezpen publikoa egin zen Europako Parlamentuan, Bruselaren, eta, orobat, OITko Enpresen eta Desgaitasunaren Sare Globalarekin elkarlanean, Ginebrako bere egoitzan argitaratu zen “Desgaitasundun pertsonentzako lan inklusiboren etorkizunaren alde” izeneko lana.

Bestalde, 2019an, D_Innovar gizarte berrikuntzarako proiektua amaitu da eta “Inserta Programaren Inpaktuaren Neurketa” egiteko IS_IMPACT metodologia probatu egin da bertan. Inserta Foroko 20 enpresa esanguratsu aztertu ostean, ondorioztatutako gizarte inklusioaren hobekuntza enplegatutako desgaitasundun pertsonako 13.237 eurotan balioetsi da. Era berean, laguntza ematen jarraitzen diegu desgaitasundun pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko konpobide berritzaileak eskaintzen dituzten Start Up-ei.



ONCE Gizarte Taldea munduan



- CERMI
- HIRUGARREN SEKTOREKO PLATAFORMA
- ITSUEN MUNDUKO ELKARTEA (UMC)
- EUROPAKO ITSUEN ELKARTEA (EBU)
- LATINOAMERIKAKO ITSUEN ELKARTEA (ULAC)
- GOR-ITSUEN NAZIOARTEKO ELKARTEA (DBI)
- DESGAITASUNAREN NAZIOARTEKO ITUNA (IDA)
- DESGAITASUNAREN ALDEKO EKINTZEN MUNDUKO SAREA (GLAD)
- BRAILLEAREN MUNDUKO KONTSEILUA (CMB)
- BRAILLEAREN IBEROAMERIKAKO KONTSEILUA (CIB)
- LIBURUTEGIEN ELKARTEEN NAZIOARTEKO FEDERAZIOA (IFLA)
- DAISY PARTZUERGOA
- NORMALIZAZIOARAKO EUROPAKO BATZORDEA (CEN)
- MUSEOEN NAZIOARTEKO KONTSEILUA (ICOM)
- ITSUEN KIROLEKO NAZIOARTEKO FEDERAZIOA (IBSA)
- GIDA-TXAKURREN ESKOLEN NAZIOARTEKO FEDERAZIOA (IGDF)
- EUROPAKO HAZKUNTZA-SAREA (EBN)
- GIDA-TXAKURREN EUROPAKO FEDERAZIOA (EGDF)
- ITSUEN ETA IKUSMEN URRIKO PERTSONEN HEZKUNTZARAKO NAZIOARTEKO KONTSEILUA (ICEVI)
- ICEVI EUROPA
- ICEVI LATINOAMERIKA

- LOTERIEN MUNDUKO ELKARTEA (WLA)
- LOTERIEN EUROPAKO ELKARTEA (EL)
- LOTERIEN ETA ESTATUEN APUSTUEN IBEROAMERIKAKO KORPORAZIOA (CIBELAE)
- EUROJACKPOT KOLABORAZIOA
- GIZARTE SEGURANTZAKO IBEROAMERIKAKO ERAKUNDEA (OISS)
- OJOS DEL MUNDO-MUNDUKO BEGIAK ELKARTEA
- HELPAGEN INTERNATIONAL ESPAINIA
- EUROPEAN NETWORK OF PHYSIOTHERAPY IN HIGHER EDUCATION (ENPHE)

Eta hurrengoetan ere badago:

- LATINOAMERIKA, 19 HERRIALDETAN JARDUTEN DUEN FOAL BITARTEZ: ARGENTINA, BRASIL, BOLIVIA, TXILE, KOLONBIA, COSTA RICA, KUBA, EKUADOR, SALVADOR, GUATEMALA, HONDURAS, MEXIKO, NIKARAGUA, PANAMA, PARAGUAI, PERU, DOMINIKAR ERREPUBLIKA, URUGUAI ETA VENEZUELA
- PORTUGALGO ITSUEN ETA ANBLIOPEEN ELKARTEA
- ZENBAIT HEZKUNTZA-PROIEKTU BALKANETAN (BULGARIA, ERRUMANIA, ALBANIA ETA BOSNIA), MAROKON, EGIPTON ETA ARGELIAKO SAHARAKO ERREFUXIATUEN KANPAMENDUETAN
- LANKIDETZA EKUADORREKO GINEAKO ITSUEN NAZIO ERAKUNDEAREKIN (ONCIGE)



- DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN EUROPAKO FOROA (EDF)
- DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ERREHABILITAZIOARAKO ETA LANBIDE PRESTAKUNTZARAKO EUROPAKO PLATAFORMA (EPR)
- WEBGUNEAN IRISGARRITASUNA ESTANDARIZATZEKO MUNDUKO PARTZUERGOA (W3C)
- GUZTIONTZAKO DISEINURAKO EUROPAKO ERAKUNDEA (EIDD)
- TURISMO IRISGARRIRAKO EUROPAKO SAREA (ENAT)
- NAZIOARTEKO BATZORDE PARALINPIKOA
- EUROPAR BATASUNEKO BATZORDE EKONOMIKO ETA SOZIALA (CESE)
- ENPRESA PUBLIKOEN ETA ZERBITZU PUBLIKOEN EUROPAKO ZENTROA (CEEP)
- FUNDAZIOEN ZENTRO EUROPARRA (EFC)
- EKONOMIA SOZIALEKO EUROPAKO PLATAFORMA (SEE)
- COUNCIL OF FOUNDATIONS
- TURISMOKO MUNDU ERAKUNDEKO KIDE AFILIATUEN PROGRAMA (OMT)



- NAZIOARTEKO PRESENTZIA ANDORRAN, PORTUGALEN ETA KOLONBIAN





5

BERDINAK Agenda 2030 ekimena betetzeko bultzadan

Bizi gareneko ingurunea gara eta, gure ingurunea eta gure planeta zaintzen ez baditugu ezin izango dugu eratu etorkizun-gizarte bizi-kalitatedunik. Hori dugu ONCE Gizarte Taldearen arauetako bat, zeina, natura-ingurunearen kaltea gutxitzeko, baliabideak optimizatu eta kontsumoen eraginkortasuna areagotzen laguntzen duten politika berritzaileetan gorpuzten baita.

Hain da garrantzitsua ikuspuntu hori ezen, Nazio Batuek esan duten moduan, lehenengo belaunaldia izan gaitzkeen munduan pobrezia desagerrarazten eta, aldi berean, aldaketa klimatikoari eusten. Eta hori guztia ezinezkoa litzateke, gizarte, ekonomia eta ingurumenaren alorretan garapen iraunkorra lortu gabe, horregatik, Agenda 2030 ekimenarekin bat eginda, hori lortzeko konpromisoa dugu hartua.

5.1

Energia iraunkorra; kontsumo arduratsua; planetaren aldeko ekintza.

7, 12. eta 13. 



ONCEk konpromisoa hartua du Isurpenak Murrizteko Plan bat ezartzeko, Politikak eta Energia eta Aldaketa Klimatikoak,

2021-2030, izeneko alorrean. Bertan, Erakundeak egiten dituen berotegi-efektuko isurpenak murrizteko hainbat neurri biltzen dira, hala nola baliabide-kontsumoa aurrezteko, ekonomia zirkularra eta garraio iraunkorra.

Intereseko taldeen artean gai horri buruzko kontzientzia osoa sustatzen jarraitzeko asmoz, ONCEk hitzarmen bat sinatu zuen, 2019ko maiatzean, Ingurumenaren Estatuko Idazkaritzarekin informazio-, hedapen- eta sentsibilizazio-ekintzak gauzatzeko ingurumenari dagokionez.

Erakundeak arreta berezia eskaintzen dio eraginkortasunaren kudeaketari eta politika zorrotzak ezartzen ditu erosketarloan, hornitzaileak aukeratzeko irizpideetan –adibidez, hurbiltasun-irizpideak betetzea-, kontsumo eta kosteak aurreztean, baliabideen erabilera iraunkorrean, hondakinen kudeaketan...

Energia-kontsumoak optimizatzea helburu duten ekintzen artean honakoak nabarmenduko ditugu:

-  **Eraikuntzetan olanak jartzea (Bibliografia zerbitzua eta beste batzuk) tenperatura aldaketarik gabe mantentzeko eta energia- kontsumoa murrizteko.**
-  **Ohiko argiztapen-sistemen ordez LED sistemak jartzea hainbat zentrotan.**



- **Inverter® teknologia erabiltzea zentroetan ipinitako klimatizazio-ekipo berrietan eta, modu horretan, instalazioen eraginkortasuna sustatzea.**
- **Estalkiak aldatzea eta material zeharrargia instalatzea ONCEren Joko Produktuen Logistika eta Ekoizpen Zentroko (CLP) bi nabetan. Ondorioz, argitasun handiagoa lortu da bi nabeetan.**
- **LED argiztapen-sistemak eta presentzia-detektagailuak ezartzea kiosko berrietan klimatizazio-ekipoen (guztiak Inverter® teknologiadunen) funtzionamendua erregulatzeko.**
- **Energia elektrikoaren baliabideen eta kontsumoen adierazleak optimizatzea: prezioa, kontratatutako/eskatutako potentzia, errektiboagatiko penalizazioak, kontsumo-eredua.**
- **Kontratatutako potentzia optimizatzea eta kontsumoa % 2,35 murriztea 2018ko guztizko fakturazioaren aldean.**
- **Erreaktiboaren gehiegizkoagatiko gainkargua murriztea: 2018an guztizko fakturazioaren % 0,8 izatetik aurtin % 0,52 izatera.**
- **Kontratu bateratua egitea kioskoak kudeatzen dituen komertzializatzaile elektrikoarekin kontsumoa eta prezioak kontrolatzeko, baita energia berde eta eraginkor gehiago erabiltzea ere.**

Berotegi-efektuko gasen isurpenak murrizteko asmoz, ONCEk Isurpenak Murrizteko Plan bat ezarri zuen 2020-2022 epealdirako. 2019an hainbat ekimen bultzatu dira isurpen horiek eta kutsadura atmosferikoa sortzen duen edozein modu, zarata-emisioak eta argi-kutsadura barne, murrizteko. Besteak beste ondorengoak nabarmenduko ditugu: aspaldiko makinak ordeztzea; aire girotuko makinetan intsorizazio-sistemak ezartzea; argiztapen fluoreszentearen ordeztzea arian-arian egoera

solidodun teknologiako LED argiztapena jartzea; kutsadura gutxiago sortzen duten ibilgailuen bitartez flota berritzea.

ONCEren Logistika eta Ekoizpen Zentroak (CLP), non Erakundearen loteria-produktuak ekoiztu eta banatzen diren, ez du inolako arriskurik jaso ingurumen-inpaktuari dagokionez. 2009tik eta, prozesuetan eraginkortasuna hobetu eta zokoratutako paper-kopurua ahalik eta gehien murrizteko, jarduera-protokolo bat ezarri zen hondakinen murrizketarako; horren bitartez, mantentzeko urteko helburu gisa, ekoizpenean zokoratutako paper-kopurua % 15 baino gehiago ez izatea lortu nahi da. Era berean, paper-hondakin guztiak paper birziklatu bilakatzeko kudeatzen dira.

Berehalako Loteria arloko joko-produktuak FSC Mix motako papera (baso iraunkorretatik etorri eta kudeatutako paper-pulpa) erabiliz ekoizten dira eta hornitzaile/ekoizle guztiek **FSC®** (Forest Stewardship Council®) eta PEFC™ (Programme for Endorsement of Forest Council) ziurtapenak daukate. Lehenengoak ziurtatzen du eskuratutako fibra aldaketa genetikorik gabeko birlandatze planifikatuko baso kontrolatuetatik datorrela eta fibra lortu arteko jagote-kate osoan errespetatzen direla giza-eskubideak; bigarrenak baso-baliabideak mantendu eta garatzen ditu karbonoaren ziklo globalei laguntzeko moduan, baita basoen ekoizpen-funtzioei balio handiagoa eman eta biologia-aniztasuna kontserbatu eta garatzeko moduan ere. Horixe bera da paper termikoaren kasua, zeina **FSC Mix eta PEFC™** zigiluek ziurtatuta baitago. Paper horretan inprimatzen dira Saltokiko Terminaleko apustuak.



Hondakinen kudeaketari dagokionez eta datozen urteoi begira, ONCEren helburua da Erakundeko zentro guztietan

sistema integratu bat ezartzea hondakinen kudeaketarako, horien bereizketa egokia ziurtatzeko helburuz.

Bestalde, Erakundeak hainbat kanal ditu, ingurumen arlokoak berariaz izan barik, langileek, afiliatuek edo bezeroek arlo horretan egiten dituzten mota guztietako keak, erreklamazioak edota komunikazioak bideratzeko. Horren harira, 2019an ez dago jasota ingurumen-arrazoiengatik aurkeztutako erreklamaziorik.


Ingurumen-inpaktua txikiagotzea eta klima-aldaketaren aurka borrokatzea dira Ilunioneke Ingurumen-arloan eginak dituen konpromisoak. Horrela islatzen du Taldeak Erantzukizun Sozial Korporatiboaren alorrean gauzatzen duen Politikan eta 2018-2021 epealdiko Gida Planeko Ingurumen Konpromisoa proiektuan. Azken horren asmoa da Taldeko enpresa guztietan ingurumen-arloan Taldeko enpresa guztiek partekatuko dituzten estrategia bat eta hainbat helburu ezartzea.

Hona hemen 2019an burututako ekintza nabarmenenak:

-  **Ilunioneke lehenengo aldiz kalkulatu du Taldearen karbono-aztarna: 106.535,9 t CO₂eq (1. eta 2. norainoko isurpenak).**
-  **Ingurumen Konpromisoa proiektua: 2019an enpresa guztien ingurumen-kudeaketa aztertu da, korporazio-mailan ingurumen-arloan politika jakin bat eta zenbait helburu onartzeko helburuz.**

“2019a oso garrantzitsua izan da ekonomia sozialerako, zeinak European Social Economy Europe (SEE) baitu ordezkari, ONCE Fundazioa zuzendaritza-organoetatik hartzen du parte plataforma horretan”

 **Ilunion Hotels-en hotelek kontsumitutako elektrizitatearen % 100ek energia-iturri berriztagarrietan dute sorburua.**

 **Ilunion osatzen duten sozietateen % 81ek UNE-EN ISO 14001:2015 arauaren arabera ziurtatutako Ingurumen Kudeaketarako Sistema bat dute ezarria.**

Energia eraginkortasunaren arloan burututako beste zenbait ekintza honakoak dira:

 **Argiztapen-sistemak hobetzea:**

- Ilunion Lavanderías-en instalazioen % 98k LED 4.0 argiztapen-sistema autorregulatua dute; horren ondorioz, elektrizitate-kontsumoa % 13 murriztu da.
- Ilunion Sociosanitario, Ilunion Automoción, Ilunion Hotels eta Ilunion Servicios Industriales arloek aurreko luminarien ordeztu LED teknologia jarri dute.
- Ilunion Servicios Industriales-ek eta Ilunion Automoción-ek mugimendu-sentsoreak eta presentzia-detektatzaileak instalatu dituzte.

 **Ekipo eraginkorragoek aurrekoak ordeztzea:**

- Ilunion Sociosanitario propano-galdaren ordeztu gas naturala erabiltzen hasi da.
- Ilunion Hotels-ek aurreko klimatizagailuen ordeztu eraginkorrako batzuk jarri ditu eta beroa berreskuratzeko ekipoak eta aire-gortinak instalatu.

 **Prozesuak optimizatzea:**

- Ilunion Lavanderías-en esterilizazio-lerroak autoklabeen kargak optimizatzen ditu.

Mugikortasun iraunkorrari dagokionez:

 **Flota iraunkorragoak:**

- Ilunion Lavanderías-ek ECO ingurumen-etiketadun 11 auto eta hiru kamioi erosi ditu.
- Ilunion Sociosanitario-ren Madrileko teleasistentzia-zerbitzuak ibilgailu hibrido eta elektrikoak ditu, baita enpresa-ibilgailu partekatu bat ere.

 **Ibilgailuen erabilera eraginkorra:**

- Ilunion Facility Services-ek jarduera-jarraibide jakinak ditu ibilgailuak modu eraginkorrean gidatzeko.
- Ilunion Servicios Industriales-ek car-sharing motako neurriak abiatu ditu langileak lan-zentroen artean mugitu daitezela.

 **Errekargaguneak:**

- Ilunion Hotels-ek 8 hoteletan instalatu ditu ibilgailu elektrikoetarako errekkargaguneak bezeroek doan erabili ditzaten.

Energia berriztagarriak:

 **Eguzki-panel termikoak:**

- Ilunion Reciclados, Ilunion Automoción, Ilunion Hotels (Hotelak: Atrium, Auditori, Bartzelona, Calas de Conil, Islantilla eta Malaga).
- Ilunion Sociosanitario (Prado de San Gregorio egoitza): eguzki-panel termikoak erabiltzen ditu ur bero sanitarioarako.

Eguzki-instalazio fotovoltaikoak:

- Textil Rental, Crisol, Las Palmas eta Tenerifeko garbitegiek eguzki-instalazio fotovoltaikoa dute.

Biomasako galdarak:

- Ilunion Sociosanitariok Calasparran duen egoitzak eta Ilunion Alcora hotelak biomazako galdara erabiltzen dute.

Horrez gain, Ilunionek ekonomia zirkularrari laguntzen dio lehengaien kontsumo eraginkorraren bidez, materialak berreskuratuz eta berrerabiliz eta hondakinak murriztuz. Eta jardueraren hazkunde osoan partaidetza bultzatzen du ekonomia zirkularrerako funtsezkoa den sektore batean.

Lehengaien kontsumoa murriztea:

- Ilunion Servicios Industriales-ek fardoak egiteko prozesuetan erabilitako plastiko-kopurua murriztu du ekoizpen-prozesuan egindako ajusteen eta langileentzako prestakuntza-ekintzen bidez.
- Ilunion Lavanderías-ek arropa bidaltzeko plastiko-kopurua 6,37 Tn murriztu du bezeroei zaku berrerabilgarriak erabiltzeko proposatuz eta ehun-lerroan paketatzerako kartoiaren kontsumoa % 15 txikiagotu du ekipoak ordeztuz eta paketatze-formatua aldatuz.
- Taldearen egoitza korporatiboan, Ilunion Dorrean, “% 0 plastiko gara” proiektua abiarazi da, bulegoetan, sukaldaritzan eta saltzeko makinetan plastikoa desagerrarazteko helburuz.





Hondakinak berrerabili eta horiei balioa ematea:

- Ilunion Hotels-ek 10.085 litro erabilitako sukaldeko olio jaso ditu biodiesel moduan erabiltzeko eta 1.054 kilo botila-tapoi balioa emateko.
- Ilunion Reciclados-ek ekitaldi honetan lehenengo aldiz eman dio balioa izpi katodikoko hodidun telebistetatik (TVs CRT) etorritako beira konikoari; zeina 2018.urtean hondakin arriskutsutzat hartu baitzen.

Ur-kontsumoa murriztu eta eraginkor egiteko, baita kalitatea bermatzeko ere, Ilunion Lavanderías-ek berreskuratze-sistema bat ezarri du tuneletan eta garbigailuetan, zeinaren bidez % 1,2ko ur-aurrezpena lortu baitu aurreko urtearen aldean. Gainera, bere estirilazio-lerroak kargak optimizatzen ditu garbiketa-prozesuan ur-kontsumoa txikiagotzeko asmoz.

ONCE Fundazioak, bestalde, ingurumena kudeatzeko hainbat sistema dauzka (SIG- Kudeaketarako Sistema Integratuen barruan) Ingurumena Kudeatzeko UNE-EN-ISO 14001:2015 arauaren bidez ziurtatuta.

Ingurumen-ebaluazioari dagokionez, nabarmentzekoa da 2019an ONCE Fundazioan, Fundazioaren elkartetan eta Servimedian ingurumen-ordezkariek izendatu zirela 2019-2022 epealdiko ESK-ko Gida Planaren esparruan. Hobekuntza-neurri nabarmengarrienak ondorengoak dira: ekipo eta instalazioen eraginkortasuna; energia-kontsumoa murriztea helburu duten jarraibideak eta praktika onak hedatzea; klimatizazio-ekipoen erabilera optimizatzea edota ekipoak amatatzea lanaldia amaitzean.

ONCE Fundazioak, bere elkarrekin eta Servimediak konpromiso irmoa dute egina klima-aldaketaren aurkako borrokan, Agenda 2030ekin eta Garapen Iraunkorraren Helburuekin bat etorrita, eta, esparru horretan, hainbat ekintza gauzatzen dituzte kutsadura saihestu eta murrizteko xedez. Urtero Arlo Betearazlearen karbono-aztarnaren kalkulua egiten da, hori baita berotegi-efektuko gasen isurpenak pixkanaka murrizteko aurretiko eta ezinbesteko pausoa.

Eta langileak sentsibilizatzen dira materialen, paperaren adibidez, erabilera ona egin dezaten eta hondakinen kudeaketa egokian lagundu dezaten. Hondakinen kopurua txikiagotzeko helburuz egindako ekintzen artean ondorengoak dira azpimarratzeko modukoak: 2019an ONCE Fundazioko langile guztiak sentsibilizatzeko burutu zen barneko ekintza Hondakinei aurrea hartzeko Aste Europarra zela-eta; "paperik gabeko bulegoa" proiektua eta jardueraren mailaz mailako digitalizazioa.


5.2 Berrikuntza.

9. IH

Eboluzioa eta berrikuntza hitzak etengabe errepikatu direneko ekitaldi bat, 2019koa, itxi berri dugu. Argi erakutsi da bertan ONCE Gizarte Taldeak beti eduki dituela bi maxima horiek etorkizun-palanka, eta ekintza eta arlo guztietan zeharkakoak izan direla. Gure kasuan, gainera, adi egoten gara edozein arlotako berrikuntzak bazterrean utz ez dezan biztanleriaren alderdi bat, desgaitasuna duten pertsonen osatutakoa, hain zuzen, zeinari ezin baitzaio oztopo gehiagorik jarri eta ez baitzaio jarri behar. Berrikuntza ez-irigarri orok kanpoan utziko dute biztaliaren zati bat eta gaitasunen arrakala handituko.

Unibertsitate, enpresa eta erakunde publiko zein pribatuekiko lankidetzat da ONCEk ikerketa laguntzeko zenbait proiekturen finantziarioaren bitartez lantzen dituen bideetako bat. Ildo horretan, Madrilgo Unibertsitate Autonomoarekin elkarlanean gizarte-arloko ikerketa-proiektu bat gauzatzen ari da gai honen inguruan: espazio-irudikapeni buruzko ikaskuntzen inpaktua ikusmen-desgaitasundun pertsonen orientazio eta mugikortasunerako.

Hori guztia egiten da bizitzako arlo guztietan irisgarritasun-irizpideak txertatzen ahaleginduz: teknologia berrietan; sostengu-produktuetan; hirien arkitektura-diseinuan; mugikortasunean; garraioan; turismoan; telefonia mugikorrean; ezagutzaren transferentzian eta garapen kolaboratiboan. Horretarako, besteak beste, honako ekintza eta ekimen hauek baliatzen dira:

-  **95 proiektu tifloteknologiaren eta laguntza teknikoaren arloan.**
-  **Zati baten finantziarioa eman zaie ikerketa 5 proiektuari. Ikusmenari eragiten dioten patologiei buruzko proiektu horiek hainbat erakundek gauzatuak dira (unibertsitateak, ikerketa-institutuak, fundazioak, eta abar.).**
-  **Gizarte-zerbitzuen arloan berrikuntzaren eta jardute onen sarien IV. edizioa.**
-  **Teknologia Irisgarrien Discapnet Sarien V. edizioa. Golardo horiek aitortzen dute desgaitasundun pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko IKT irisgarrien bidez egindako konpromisoa.**
-  **Aniztasunerako Teknologia eta Turismoari buruzko III. Biltzarra.**
-  **Tifloteknologia eta Berrikuntzarako ONCEko Zentroak (CTI) zuzenean hartu zuen parte pertsona itsuei zuzendutako 48 jardueratan (2 nazioarte-mailan).**
-  **ONCE Fundazioa babesle izan da hainbat jardunaldi eta ekitalditan. Hauexek dira aipagarrienak: S- Moving, GLOBAL ROBOT EXPO, Interacción 2019, DIGITAL JOVE, Telekomunikazioen Kataluniako 17. Diada eta M- Enabling Europe.**
-  **Espacia Berrikuntza Aretoaren inaugurazioa ONCE Fundazioaren egoitzan: berrikuntza eta irisgarritasunari zuzendutako espazio ireki bat.**



6

BERDINAK, inor atzean utzi gabe

6.1 Kalitatezko lana eta konpromiso ekonomikoa.

8. IH

Etika eta gardentasuna, jokabide guztietan etorkizuneko helburuak zehazteaz gain, konpainiaren barneko zein kanpoko dokumentu guztietan jasotzen diren maximak dira. Ildo horretan, erantzukizunen arabera bete beharreko kode etiko bati gehitzen zaio Gardentasun Behatokia, zeinak Nazio Batuek proposatzen duten lan zintzoaren aldeko bultzadapean partekatutako hainbat konpromiso eta erantzukizunen zirkulu bat ixten baitu.

Jokabide-estandar etikoak

Ekimen etikoak zenbait kodetan barneratu dira Erakundearen 2004tik aurrera eta, 2015ean, kasik ONCE Gizarte Talde osoa barne hartzea lortu da.

Ekimen horien garapena, sustapena, ezarpena eta jarraipena bermatze aldera, Etikari, Giza Baliabideei eta Erakunde Kulturari buruzko Batzordea (gaur egun Gardentasun eta Etika Behatokia) eratu zen, zeina,

zuzenean Kontseilu Nagusiaren menpe egonda, ONCE Gizarte Taldean nagusitzen diren jokabide-estandarrak aplikatu eta betetzeaz arduratzen den organoa baita. 2019an Interneteko minisite bat landu zen, iaz, Erakundearen balioetan langile guztiak inplikatzekeo estrategiaren ondorioz, onartu izan zen proiektua abian jartzeko.

Aurreko ekitaldian ONCE Gizarte Taldeko sare sozialen erabilerari buruzko gidalerroak onartu ziren Taldeko kontseilari, zuzendari, erdi-mailako arduradun eta kudeaketa-arloko zuzendari-mailarik gabeko bestelako arduradunentzat. Era berean, Jokabide Kode Etikoa garatzeko jarraibideak onartu ziren, beroriek betetzen laguntzeko xedez (interesen arteko gatazka posibleak jakinaraziko dira; ez dira aprobetxatuko zalantza egoerak, besteren akatsak edota irizpide- zehaztasungabetasunak sortutakoak legez kontrako abantailak lortzeko, eta abar).

Delituak saihestu eta antzemateko ereduaren bidez detektatzen da enplegatuek edota zuzendaritza-taldeko kideek delituak egiteko duten arriskua, baldin eta ONCEren erantzukizun penala berekin eraman badezake, eta, aldi berean, aplikatzekoa den beharrezko kontrola zedarritzen da. Erakundeak “Compliance Politika” eta “Compliance Penalaren Kudeaketa Sistema egituratzeko Dokumentua”



onartuak ditu. 2019an Betetze Penal Prebentiboa Kudeatzeko Sistemaren ezarpenean aurrera egiten jarraitu da, besteak beste honelako neurriak gauzatu:

- **Kanal bat atontzea ez-betetzeak edota delitu bat egitea ekar ditzaketen jokabideak salatzeak. Kanal hori ONCE Gizarte Taldearen Jokabide Kode Etikoaren urratzeak salatzeak kanalean dago txertatuta.**
- **Prebentzio Penaleko Organoak (PPO) hiru hilez behingo txostenak eta urteko Memoria egitea.**

Datuen Babeserako Araudi Orokorrari (DBAO) dagokionez, bi dokumentu garrantzitsu idatzi ziren: datu pertsonalak babesteko Gutuna eta prozedura dokumentalei eta ONCEren artxiboen antolamenduari eta kudeaketari buruzko Gutuna. Gaurkotu eta onartu egin zen Datuen Babeserako Araudi Orokor berria eta Datu Pertsonalak Babesteko 3/2018 Lege Organikoa betetzeko heburuz. Horrez gain, ONCEk Datuen Segurtasunerako Batzordea eta Dokumentuen Baloraziorako Batzordea dauzka eratuta, esandako Gutunak betetzen direla egiaztatzeak, hartu beharreko irizpideak eta neurriak finkatzeko eta barneko kontsultak erantzuteko.

Araudiak xedatutako arauak betetzeko asmoz, 2019an hainbat ekimeni ekin zaie:

- **ONCEren barne-araudian eranskin moduan txertatutako datuen babesari buruzko legenda egokitzea.**
- **Hornitzaileekin egindako kontratuak, baita erakundearen hitzarmenak eta akordioak, egokitzea baldin eta datuen tratamendua beraiekin badaramate.**
- **ONCEren zentroetan paperean dauden eta bidezaintzan eskuratu diren datuen tratamenduen arriskuaren analisia amaitzea, datuen kategoria edozein izanda, eta gorabeherak konpontzea.**

ONCEk batzorde bat dauka eratuta kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantziazioa saihesteko ezarritako neurrien barne-betetzea gainbegiratzeko (PBC eta FT). 2019an, Batzordeak 6 ohiko bilera egin ditu Unitate Teknikoak jakinarazitako sariak ordaintzeko operazioak aztertzeak, eta hainbat neurri finkatzeko kapitalen zuriketa eta terrorismoaren finantziazioa saihesteko politika horien hobekuntza, kontrol eta egikaritzarako.

2019ko abenduan urteroko barne-ikuskaritza burutu zen arlo horretan hartutako neurriak berrikusteko. Une hartan hobetzeko zenbait gomendio ezarriak ziren jadanik eta beste batzuk konpontzeko bidean.

Azkenik, badaude zaintza handiagoa lortzea eta jokabide posible batzuk kontrolatzea helburu duten zenbait lanabes: joko-alorraren segurtasun-arloan jarduteko zenbait kode; informazioaren segurtasunerako politikak eta zerga-prozedurei buruzko eskuliburua, besteak beste.

BALIO ETIKOAK

Komunikazioa • Elkartasuna • Konfidentzialtasuna • Ekitatea • Konfiantza • Zintzotasuna
 Apaltasuna • Begirunea • Konpromisoa • Profesionaltasuna • Erantzukizuna

Gardenak



2014an, ONCE Gizarte Taldearen Gardentasun eta Etika Behatokia sortu zen gardentasunari, informazio publikorako sarbideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen ondoriozko betebeharrei erantzuteko xedez. Behatokiaren helburu nagusia da Lege horretan aurreikusitako betebeharrak guztien erabateko ezarpena lortzea. Horien artean, gardentasun-politika korporatiboaren esparruan bildutako informazioa duten webguneak eguneratzea dago (ikuskaritza independente baten txostena; urteko kontuak eta kudeaketa-txostena; administrazio publikoekin egindako hitzarmenen zerrendak, besteak beste).

Aurrekoa eta informazio ez-finantzarioaren alorrean 11/2018 Legean ezarritakoa oinarri, ONCE Gizarte Taldearen 2019ko ekitaldiko Balio Partekatuari buruzko txosten honekin batera, ondoko dokumentuak idatzi dira eta webguneetan argitaratu:

- ONCEren, ONCE Fundazioaren eta Ilunionen 2019ko ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostenak, dagozkien ikuskaritza-txostenekin batera.
- ONCEren eta ONCE Fundazioaren Informazio Ez-Finantzararioari eta Aniztasunari buruzko egoera-orriak (biek Ilunioni buruzko atal bat jasotzen dute), 2019ko ekitaldikoak, dagozkien egiaztapen-txostenekin batera. Eta oraindik ere argitaratuta daude 2018ko ekitaldiko Informazio Ez-Finantzararioari eta Aniztasunari buruzko egoera-orriak.



Adierazi behar da 2019an ONCE Interes Publikoko Erakunde bilakatu dela, Kontu Ikuskaritzari buruzko 22/2015 Legearen eta (UE) 537/2014 Erregelamenduaren xedeetarako, Espainiako sozietate nagusien moduan, eta horrek betekizun handiagoak ekartzen ditu ikuskaritza osatzeko, baita ONCE Gizarte Taldearen Ikuskaritza Batzorde Nagusiak kanpo-ikuskaritzaren segimendua egin behar izatea ere.

Eta Administrazioari igortzeko ondoko agiriok egin dira:

-  **ONCE Gizarte Zerbitzuen Urteko Memoria Babesletza Kontseiluan aurkezteko.**
-  **ONCE Fundazioak, halaber, bere Patronaturako eta ONCEren Babesletza Kontseilurako honakoak prestatu ditu: Irisgarritasun Unibertsalaren gaineko Jardueren Gizarte Emaizten Txostena eta Gizarte Jardueren Memoria.**

2019ko ekitaldiari dagokionez, eta ONCE Gizarte Taldearen Ikuskaritza Batzorde Nagusiaren koordinaziopean, ONCEren Babesletza Kontseiluan derrigorrezko 17 ikuskaritza eta borondatezko bat aurkeztu dira: 6k ONCE Gizarte Taldeko entitateen urteko kontuekin dute zerikusia; 3k Informazio Ez-Finantzarioari eta Aniztasunari buruzko egoera-orriekin; eta 9k Nazioko Gobernuaren eta ONCEren artean 2011ko azaroan sinatutako Akordio Nagusia betetzearekin.

Halaber, hiru urtean behin, World Lottery Association (WLA) eta European Lotteries (EL) erakundeek eskatuta, ikuskaritzalanak burutzen dira helburu bikoitza lortzeko:

-  **ONCEk WLAREN segurtasun-estandarrak betetzea.**
-  **WLA eta EL erakundeek joko arduratsuaren arloan finkatutako estandarrak betetzea.**

Ikuskaritza horien ondorioz, Babesletza Kontseiluan ere aurkeztuta, lau ziurtagiri eskuratu dira, zeintzuk gure webgunean argitaratuta baitaude.

Azkenik, hiru urtean behin, Ogasun Ministerioak homologatutako enpresa batek ziurtatzen ditu joko aktiboaren arloko produktuen

zozketa birtualetan eta bat-bateko loteriaren txartelen Interneteko erosketetan erabitzen diren ausozko zenbakitze-sortzaile biak, baita txartelen erosketarako eta joko aktiboko apustueterako funtzionalitatea ere.

Hau da, guztira, ONCEk kanpoko 8 ziurtagiri dauzka (nazioarteko 4 eta estatu-mailako 4), denak bere loteria-produktuekin lotuta eta hiru urtean behin berrituta.

ONCE Gizarte Taldeko entitateen kontrol ekonomiko eta finantzarioaren eremuan, ONCEren Kontseilu Nagusiak Estrategia Ekonomiko, Joko eta Enpresa Garapeneko Batzordearen esku utzi ditu funtzio horiek. Esandako Batzordeak ondorengo eragiketen aurretiko baimenak emateaz arduratzen da: jokorako produktu, bide eta euskarriekin lotutako hainbat eragiketa; banku-finantzazioaren arloko eragiketak; sozietateen eraketa, banaketa, erosketa eta salmentetarako eragiketak; administrazio-kontseiluen, fundazioen, patronatuen edo elkarten zuzendaritza-batzorde aldaketak; estatutuen eta barne-arauen aldaketak...

6.2 Erakunde solidarioak eta helburuak lortzeko aliantzak.

16. eta 17. IH

Duela 80 urte eratu zenetik, ONCE herritarrekiko, oro har, erantzukizun sozialeko erakunde gisa sortu zen, pertsona itsuen edota beste desgaitasunen bat zutenen autonomia pertsonala eta erabateko inklusioa sustatzeaz arduratzen baitzen.

Hasieratik, gero Erantzukizun Sozial Korporatiboa (ESK) esan zitzaiona osatzen zuten gakoak izan ziren kudeaketa-arlo guztiei eragiten dien identitatearen funtsezko osagarriak. Eta horrela izan da baliabideen hornikuntzatik hasi eta ingurunearekin harremanetan egoteko moduan amaitu arte, betiere, ematen ditugun zerbitzuen efikazia ahalik eta gehien areagotzeko ikuspuntutik abiatuta.

Eta, berriz ere, ESKren ardatz bilakatu ditugu Erakundea osatzen duten pertsonak eta, horregatik, erreferente izan nahi dugu giza-baliabideen politikan eta kudeaketan, aurrean, gainera, erronka handi bat izanda: desgaitasunaren erruz

laneratzeko zailtasun handiak dituzten gero eta pertsona gehiago sarraraztea gurean.

Entitatearen instituzio-xedea bera da erantzukizun-adibide argia; baina gure jarduerak, bereziki instituzio solidario baten adibide gisa, intereseko talde nagusietan eragiten dituen inpaktuak ezagututa, aurrera egiten jarraitzen dugu Erakundearen kudeaketa orokorrean erabat sartuta egongo denerantzukizun sozial korporatiborako sistemabaterantz. Ildo horretan, honako ekintza hauek burutu ziren 2019ko ekitaldian:



Arloen ESKren bi urteko Gida Planek indarrean jarraitzen dute.



ESK, Berdintasun eta Erakunde Kulturaren Unitatea, zeinak genero-berdintasunari buruzko politika, plan eta neurrien ezarpena koordinatzen baitu.



ONCEk Nazio Batuen Munduko Hitzarmenean atxikita jarraitzen du, mundu-mailako ekimenik handiena erantzukizun sozial korporatiboaren arloan.



ONCE Gizarte Taldeak bere estrategia globala bideratzen du garapen iraunkorraren arloan Munduko Hitzarmenak sustatzen dituen helburuak betetzera.



Aliatu asko bidelagun

Eta, beste zenbait arlotan gertatzen den bezala, ONCE Gizarte Taldeak adi jarraitzen du Erakundearen ingurutik kanpo lan egiten duten desgaitasun pertsonen errealitateari. Hori dela eta, afiliatuei sostengu eta aholkularitza eskaintzeko protokolo

bat dauka, Erakundetik kanpo ikusmen-desgaitasunagatiko bazterkeria gertatzen deneko kasuetarako. Gaur egun ez dago bazterkeria-kasuen berririk.

“ONCE Fundazioak desgaitasunaren dimentsioa sustatzen du erakunde, enpresa edo administrazioetako ESK eta Iraunkortasun arloetan, desgaitasundun pertsonen gizarte- eta lan-inklusioa bultzatzeko xedez”




Eta gure eguneroko lanaren zati handi bat desgaitasundun pertsonekin dugun erantzukizunaren inguruan biratzen denez, gure konpromisoa da – eta benetan gustura egiten dugu- jakintza eta aurrerapausoak partekatzea bestelako enpresei eta erakundeei erantzuleago eta inklusiboago izaten eta, azken batean, lehiakortasun-gaitasunak hobetzen lagunduko dieten gaietan.

ONCE Fundazioak hainbat ekimen bultzatzen ditu desgaitasunaren dimentsioa sustatzeko beste zenbait erakunderen Erantzukizun Sozial Korporatiboaren (ESK) eta Iraunkortasunaren arloetan.

Horrela egiten du, adibidez, enpresa edo administrazio publikoetan, desgaitasundun pertsonen gizarte- eta lan-inklusioa sustatzea azken xedea izanda. Horren harira, nabarmentzekoak dira Inserta Responsable Foroa, Kontratazio Sozialki Arduratsurako Foroa (CON R Foroa), Bequal Zigilua, eta Europako Gizarte Fondoarekin batera finantzatzeko Disability Hub Europe ekimen europarra.

Arlo horretan, aipatzekoa da 2019an ONCE Fundazioak ondorengo plataforma edo entitateetan izandako partaidetza. Estatu-mailako, Europako edo nazioarteko plataforma eta entitate horietan zuzen zein zeharka (beste entitate batzuen bitartez) hartu du parte.

Erakunde nazionalak

-  **Desgaitasundun Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordea (CERMI).**
-  **Justizia eta Desgaitasuna Foroa.**
-  **Desgaitasunaren Errege Patronatua.**
-  **Fundazioen Espainiako Elkartea (AEF) eta Fundazioen Análisi Estrategikorako Institutua (INAEF).**
-  **National Advisory Board for Impact Investment (Spain NAB).**
-  **Espainiako Enpresa Konfederazioa Ekonomia Sozialerako (CEPES).**
-  **Spainsif (Espainian inbertsio iraunkor eta arduratsua gauzatzeko plataforma).**
-  **Forética.**

Erakunde europarrak

-  **Fundazioen Zentro Europarra (EFC).**
-  **European Disability Forum (EDF).**
-  **Enpresa eta Zerbitzu Publikoko Zentro Europarra (CEEP).**
-  **Desgaitasundun Pertsonen Errehabilitazio eta Lanbide Prestakuntzarako Plataforma Europarra – European Platform for Rehabilitation (EPR).**
-  **Desgaitasundun Pertsonentzako Zerbitzu Hornitzaileen Elkarte Europarra (EASPD).**
-  **Guztionezko Diseinurako Institutu Europarra (EIDD – Design For All Europe).**
-  **Turismo Irisgarriarako Sare Europarra (ENAT).**

Nazioarteko erakundeak




-  Council On Foundations (COF).
-  Webguneko Irisgarritasunaren Estandarizazioarako Partzuergoa - World Wide Web Consortium (W3C).
-  Turismoaren Mundu Erakundeko Kide Afiliatuak Programa (OMT).
-  International Standard Organization (ISO).
-  Global Reporting Initiative (GRI).

Bestalde, jarduerari buruzko informazio nahikoa emateko, 2018an eta 2019an ONCEren eta ONCE Fundazioaren Informazio Ez-Finantzarioari eta Aniztasunari buruzko Egoera Orri Bateratuak (EINF) egin dira eta kanpoko enpresa batek ikuskatu ditu. Orobat, Balio Partekatuari buruzko Txostena eta Gobernu Korporatiboari buruzko Txostena argitaratu dira, intereseko taldeei begira komunikazio eta gardentasunaren aldeko ekintza osagarri eta borondatezko gisa.

ESK Plana, gainera, bikaintasun-proiektuetako bat izan da EFQM + 500 ziurtagiria lortzeko esparruan. Gida Planaren segimendua egiteko sistema bat prestatu da arloei hainbat neurri ezarrita eta ESK zeharkako gaitzat hartuta.

ESK eta Iraunkortasun arloko aliantzei dagokienez, aurrerapen garrantzitsuak gertatu dira funtsezko foro eta plataforma batzuekin:

- 

- 
- 
- 
- 

Foro horietan guztietan ONCE Fundazioaren, desgaitasunaren alorrean erreferente den aldetik, praktika eta proiektu onenak nabarmendu eta hedatzen dira.





Ekitaldi honetan, halaber, azpimarratu beharrekoa da “Desgaitasundun pertsonen inklusioaren eragina enpresen erreputazioan” izeneko azterlana argitaratu izana eta, orobat, “Desgaitasuna, informazio ez-finantzarioa, gardentasuna eta gobernu ona” dokumentua, azken hori CERMI eta Bequal Fundazioarekin elkarlanean.

ONCE Fundazioa Espainiako fundazio gardenenetariko bat da, Konpromiso eta Gardentasuna Fundazioaren sailkapenaren arabera.

Horrez gain, gardentasunaren eta erreputazioaren ikuspuntutik abiatuta, elkarlanean aritzen da hainbat eragilerekin ESKri eta Iraunkortasunari buruzko kultura eta Agenda 2030 ekimena hedatzeko (adibidez, 2019ko azaroaren 23an Madrilan egindako FIAPASen Gida Jardunaldietan aritu zen txostengile): erakunde eta entitate ugariarekin (MERCOS, zenbait unibertsitate eta negozio-eskola, enpresa jakin batzuk hitzarmen askoren bitartez, eta abar); zenbait gobernurekin eta administrazio publikorekin,

ONCE Gizarte Taldearen Erakunde Harremanen barruan; baita mugimendu asoziatiboarekin ere.

Fundazioak, Bequal Zigiluak eta “CON R” Foroak lanabes garantzitsuak izaten jarraitzen dute desgaitasunaren dimentsioa sustatzeko izaera askotako erakundearen estrategian eta praktikan:

- **Bequalek 13 enpresa eta erakunde ziurtatu zituen 2019an, metatutako guztizkoa 37koa izanda. ONCE Fundazioak Premium kategoriako ziurtapena berritu du.**
- **50en bat erakunde osatutako CON R Foroari dagokionez, nabarmentzekoa da % 2ko kuota betetzearen alde izan duen eragina kontratazio publiko sozialki arduratsua bultzatzeko plan nazionalan, eta, bestek bestek, **Kontratazio Publikoari buruzko III. Biltzarrean izandako partaidetza. Biltzarra 2019ko azaroaren 5ean egin zen “Kontratazio publikoa politika publikoen zerbitzura” izenpean.****

Laburbilduz, Nazio Batuen Garapen Iraunkorren Helburuak (GIH) betetzeko ekarpena egin da: ONCEren aldetik, kontsumitzaile-taldeak babestea; gizarte-zerbitzuen eredua sendotzea; joko arduratsua bultzatzea; langileen garapena lanbide- eta giza-arloetan; aukera-berdintasuna; etika edo ingurumenekiko eta gardentasunarekiko konpromisoak; eta ONCE Fundazioaren aldetik, garapen iraunkorarekin hartua duen konpromisoa, bere eginkizun sozialaren konplimendua abiapuntu.

Eta, hori guztia, Ilunionekek ekonomia inklusiboaren alde duen proiektuaren barruan balio partekatua sortzeko orduan. Horretarako, ESKri buruzko Gida Planaren hainbat proiektu gauzatu dira eta zenbait estrategia, palanka eta tresna egokitu

dira Erakundearen jarduera bat etor dadin inklusioaren, lehiakortasunaren eta iraunkortasunaren arloetan eginak dituen konpromisoekin eta GIHren eta Agenda 2030ren aldeko ekarpenarekin.

Erakunde Kultura

Ezinezkoa litzateke Erakundearen gorago adierazitako helburuak betetzea ONCE Gizarte Taldea eratzen duten pertsonen batasunik eta kohesiorik gabe. Horiek guztiak dira topatu daitezkeen enbaxadorerik onenak markarako eta, ondorioz, Erakunde Kultura oinarrizko tresna da pertenenzia-sentimendua indartzeko eta Erakundearen balioak eta printzipioak ezagutu eta baloratzen jakiteko.

Urtero eguneratzen den eta ekintza berriak barne hartzen dituen Erakunde Kulturaren Plan bat dugu, zeinak Taldearen irudia sendotzen eta modernizatzen laguntzen baitigu. Halaber, oinarri tinkoa da langile sartu berrientzat eta Erakundeko gainerako "stakeholder" guztientzat, baita gizarte osoarentzat ere.

Gizarte-zerbitzuen zuzendaritza eta kudeaketarako taldeek abian jarri dute Erakunde Kulturaren arloko Ekintza Plan bat, horren bidez bermatu ahal izateko langile guztiek (gizarte zerbitzuen arlokoak, bereziki) beren ezaugarri berezkoenak partekatzen dituztela. 2019ko ekitaldian nabarmena izan da zentro guztiek egindako ahalegina erakunde-kultura sustatzeko eta agerian geratu dira profesional guztiek dituzten inplikazio-maila eta pertenenzia-zentzu handiak. Horren harira, ONCEk erakunde-kulturari buruzko moduluak eskaini ditu prestakuntza-programen barruan eta 4.918

bertaratze izan dira beraietan. Aliantzei eusteko beste modu bat, langileak beraiak, adierazgarri eta enbaxadore onenak diren aldetik, abiapuntu hartuta.

Erakunde Harremanak

Erakunde Harremanak funtsezko elementu dira ONCE Gizarte Taldearen ezagutza hobea eta egokiagoa sustatzeko, baita garrantzizko eragile publiko zein pribatuekiko harremanak hobetzeko ere.







Desgaitasundun Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordearekin (CERMI) ekarlanean, ONCE Gizarte Taldea bultzatzaile eta laguntzaile da Espainian desgaitasunaren inguruko mugimendua egituratzeko.

Desgaitasunaren sektoreko erakundeekiko lankidetzeta estua gauzatzeko moduak dira, alde batetik, sektoreko erakunde nagusiek ONCE Fundazioaren Patronatuan duten presentzia, eta, bestetik, ONCE Fundazioa CERMIren gobernu- eta erabakitze-organoetako kide gisa duen partaidetza.

ONCE Fundazioak, urtero, bere fondoek zati handi bat bideratzen du desgaitasunaren sektoreko zenbait erakunde eta entitateen ekimenak finantzatzera. Horretarako, proiektu-deialdiak antolatzen ditu ondorengoei begira: Erakundeak garatzen duen jarduerarekin bat datorren jardueraren bat gauzaten duten Espainiako entitateak; desgaitasunaren bat duten eta Espainiako nazionalitatea duten pertsonak; eta, salbuespen moduan, Espainiako nazionalitateaz bestelakoa duten pertsona naturalak edo juridikoak.

“ONCE Fundazioak bere fondoek zati handi bat bideratzen du desgaitasunaren sektoreko zenbait elkarte eta entitateen ekimenak finantzatzera”

Denbora-tarte honetan gauzatutako en artean, ondokoak nabarmenduko ditugu:

-  **Lankidetzaren Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Kontseiluarekin, zeinarekin batera Kontsumitzaileen Eskubideen aldeko Mundu Egunari zuzendutako kupoia aurkeztu baitzen.**
-  **Lankidetzaren Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Kooperatiben Espainiako Konfederazioarekin (Hispacoop), zeinarekin batera “Erabilera eta kontsumo arduratsua jokoan eta apustueta” proiektua burutu baita.**
-  **Defentsako Ministerioarekin egindako Hitzarmenaren esparruan, Larrialdietarako Unitate Militarraren (UME) prestakuntza- eta espezializazio-planetan parte hartzen jarraitu da. Halaber, kupoi bat egin da Bake Misioen 30. urteurrenaren omenez eta Defentsa ministroa bertaratu zen aurkezpena.**
-  **Polizia Nazionalarekin egiten dugun lankidetzaren barruan nabarmentzekoak dira “Pablo García, Polizia” ipuinaren aurkezpena eta emakumeak Polizia Nazionalaren zerbitzura sartu izanaren 40. urteurrenaren omenez egindako kupoia.**
-  **CEOMA eta UDP adinekoen erakundeekin egindako hitzarmenaren barruan aipatzekoa da “Hablando en Senior” kupoi-bilduma, zeina Adinekoen Nazioarteko Eguna zela- eta jaulki baitzen.**
-  **RAIS-Hogar Sí Fundazioarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren barruan ondoko ikerketa-proiektuan hartu dugu parte: “Etzerik gabe dauden desgaitasundun pertsonak babesteko sistemarako eta ziurtaginerako sarbidearen hobekuntza”.**

Lefebvre-El Derecho argitaletxearekin batera amaitu da “Memento Personas con Discapacidad” lanaren prestaketa.

Lan-harremanen eremuan, hainbat jardura burutu dira bi enpresa-plataforma nagusiekin (CEPYME eta CEOE), baita bi sindikatu-erakunde behinekin (UGT eta CCOO) ere. Azken horiekin lan egin da erronkak eta konponbideak bilatzeko berehalakoan sortutako desgaitasunaren aurrean, baita negoziazio kolektiboan desgaitasunaren dimentsioa txertatzeko bideak urratzeko ere.

ONCE Fundazioak, fundazioen sektorean erreferente den aldetik, ekarpen aktiboa egiten du Fundazioen Espainiako Elkartearen (AEF) esparruan, besteak beste, Inklusiorako Fundazioen Sektore Taldearen bidez, INAEFen bidez eta, urtero bezala, DEMOSen duen partaidetzaren bidez, aurrean hirugarren edizioan izandakoaren bidez. 700 pertsona bertaratu direneko azken edizio horretan 80 txostengilek baino gehiagok hartu dute parte eta fundazioek Garapen Iraunkorraren Helburuak betetzeko prozesuan duten zeregina nabarmendu da bertan.

Era berean, hirugarren sektorearekiko gizarte-harremanen alorrean, nabarmentzekoa da gaixotasun arraroen elkartemugimenduari (FEDER) egindako sostengua, zeina aholkularitza estrategikoaren ikuspuntutik egin baitzen eta erakundearen bigarren plan estrategikoaren prestaketarekin gogoratu iritsi baitzen.

ONCE Fundazioak ekonomia sozialari lotutako erakundeen arteko lankidetzarako gidatzen duen prozesuan jarraitu dugu lanean. Horren harira, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren egoitzan eta Luis Planas ministroaren

aurrean hitzarmen bat sinatu genuen Arrantzaleen Kofradien Federazio Nazionalarekin, besteak beste, lan-inklusioaren, prestakuntzaren eta sektore horren irisgarritasunaren alde aritzeko. Horrez gain, lau kupoi jaulki ziren arrain-kontsumo osasungarria sustatzeko. Halaber, ASISA Fundazioarekin sinatutako hitzarmenaren esparruan, barruan haur-ipuina zituzten 12 kutxa eman genituen HLA Taldeko ospitaletako pediatria-arloetarako; modu horretan, txikiaren irakurzaletasuna piztu eta ospitaletako egonaldia alaitzen saiatzeaz gain, haurrak sentsibilizatu nahi ziren desgaitasun gaiari buruz eta haiengan sustatu inklusioa, aniztasuna eta gainditze-joera bezalako balioak.

Enpresa-arloan, azpimarratzekoa da Microsoft-ekin egindako lankidetzaren teknologia berrien irisgarritasuna eta sektore horretako enplegua sustatzeko.

ONCEren Kontseilu Nagusiaren Berrikuntzarako, Analisisirako eta Aldaketa Sozialerako Behatokia babesten jarraitzen dugu.

Izan ere, horren bitartez eta hainbat txostengile bikainen eskutik, 2019an Hausnarketarako 2 Foro eraman ditugu aurrera: "Hezkuntza, gainditu gabeko ikasgai bat: oraingo eta etorkizuneko ikuspegiak" eta "Komunikaziorako modu berriak: egia-ondokoa, fake news-ak eta lotutako gaiak". Orobat, egungo egoeraren mapak helarazi ditugu; horietan ONCE Gizarte Taldeko arlo exekutiboaren zenbait azterlanen egoera biltzen da, baita Behatokiaren xedearrekin bat datozen intereseko berriak eta argitalpenak, barrukoak zein kanpokoak, ere.

Azterlan estrategikoen esparruan ikerlan bat bultzatu eta prestatu dugu desgaitasundun pertsonentzako pentsio-planetatik sortutako prestazioen oraingo zerga-ordainketarako alternatibei buruz.





7

BERDINAK gizarte-iraunkortasuneko etorkizun baterantz

ONCE Gizarte Taldearen Balio Partekatuari buruzko 2019ko Txosten honi hasiera eman dio Miguel Carballeda ONCEren presidentearen bihotzetiko gutun batek. Carballedak lerro horiek idatzi ditu Covid-19ren krisiak Espainian eta munduko zati handi-handi batean eragindako konfinamendutik, zeinak 2020a, martxoaren erdialdetik, markatu egin baitu eta, zalantza barik, gizadiaren eta Erakundeen historian mugarri bat izango baita aurretikoa eta ondorengoa argi banatuz; ONCE ez da salbuespen bat izango horretan.

Lerro hauek ixtean, ONCEko saltzaileak, ilusioz betetako 19.000 desgaitasundun pertsona, kalera irten dira berriro etxean hiru hilabetez egon ostean eta, Erakundearen historian lehenengo aldiz, kupoiaren tradiziozko zozketak gelditu ostean. Etorkizunari buruzko ziurgabetasuna handia da baina ONCEren eta bere jendearen konpromisoa are handiagoa.

Izan ere, ONCEren presidentea, Miguel Carballeda, 2020ko ekainaren 2an Diputatuen Kongresuan azaldu zen, gizarte zibilaren ordezkari gisa deituta, gure aletxo eta gure ideiak eramateko Berreraikitze Sozial eta Ekonomikorako Batzordera.

Diputatuen aurrean, akordio handi bat eskatu zuen, batasun-hitzarmen handi bat indar politiko, ekonomiko eta sozial guztien artean, herrialdea pandemiaren ondoren, eta enpleguan, batez ere, oinarrituz, berreraikitzeko. “Egin dezagun borroka lanean hogeit hamar milioi pertsona lortzeko; hori izango da onena eta orduan ez dugu langabezia hitz egingo”, esan zuen une hartan, etorkizun-idea moduan, herrialdearen ahalegina lau alderditan ardazteko: enplegua ekintza-erdigune gisa; hezkuntza inklusiboa; kontratazio sozialki arduratsua enpresa eta administrazioen aldetik; eta irisgarritasuna, aurreko guztia, eta desgaitasundun pertsonentzat bereziki, posible egiteko gako gisa.

Eta ONCEren zenbait konpromiso jakinarazi zituen 2020rako, konfinamendu osteko garairako alegia. Bi konpromiso nagusitan laburbildu ditugu esandakoak: ONCE Gizarte Taldeak hainbat egoitza berri irekiko ditu Sorian, Teruelen, Zamoran, Ávilan eta La Palma uhartean, “Espainia hustuta” deitzen dioten horretan, eta ezin egoki prestatutako zenbait emakume itsu izango dira egoitzen zuzendariak; bestalde, 2019.urtearen amaieran zeuden 73.000 langileak abiapuntu hartuta, ONCE Gizarte Taldea saiatuko da 75.000 langile lortzen 2020an, gertatutako egoera latza gorabehera, desgaitasundun pertsonengan ohiko enfasia jarrita.

Eta, hori guztia, nahiz eta asmo handiko joko-planak eta gizarte-planak (azken ekitaldien bilakaera onari lotutakoak) zapuztuta gelditu ziren, COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-krisia kudeatzeko Nazioaren Gobernuak Estatu osoan Alarma Egoera deklaratuak. Hiru hilabetez derrigorrezko eta erabateko geldialdian egon eta gero, jarduera ahalik eta indartsuen hasi da berriro hainbat astetan ONCE Gizarte Taldea langileak, afiliatuak eta gizarteak, oro har, babesten erabat emana egon ostean.

Eta, jarduerari berriro ekitean, erabaki zailei egin behar diegu aurre nahiz eta gure asmoa eta gure betebeharrak –dagoeneko adierazi duguna- ahalik eta lanpostu gehien babestea den; betiere aintzat hartuta gure kasuan enplegua ez dela diru-sarrerak lortzeko bide bat, baizik eta berezko xede bat, helburu bat: ahalik eta desgaitasundun pertsona gehieni lanpostua ahalbidetzea eta, modu horretan, bizitza-aukerak sortzea.

Hori dela-eta, egun zail hauetan lortutako ikaskuntzatik helburuak jaio dira eta, guztien artean, beti indartsuago egingo gaituen bat dago: langileen prestakuntza etengabearen alde jarraituko dugu apustu egiten, abileziei zein gaitasunei dagokienez, gure Campus Birtualaren eta bestelako plataforma telematiko irisgarrien erabilera lehenetsiz eta bultzatuz kalitatezko urruneko prestakuntza, hau da, etorkizun-bermea, ahalbidetzeko.

Horren harira, ONCE Fundazioak egokituko du 2019ko azken patronatuan onartua izan zen Jarduera Plana Koronabirusaren aurkako borrokak sorrarazitako egoera berrira. Honakoak izango ditu ardatz:

 **Por Talento Digital programa sendotzea.**

 **Por Talento Emprende programa indartzea.**

 **Goi-mailako prestakuntzan desgaitasundun pertsonak babesten erreferente izateko heburuz:**

- Alumni Sarea abiatzea, ONCE Fundazioaren beka bat jaso duten desgaitasundun gazteak biltzeko.
- Hizkuntza-arloko beken programa.
- Aukera bat Talenturako beken programa
- CRUE/ ONCE Fundazioa Lanbide Beken programa.

 **“Accesibilas” onlineko plataforma abiaraztea. Erreferente nazionala izan nahi du irisgarritasun unibertsalaren arloan prestakuntza- eta informazio-euskarria eskaintzen.**

 **Done Jakue Bidea Irisgarri abian jartzea.**

 **Irisgarritasunaren arloko prestakuntza MOOC bitartez.**

 **Gizarte Ekintzaitza bultzatzea desgaitasundun pertsonen bizi-kalitatean eragina izan dezan.**

 **Berrikuntza sustatzea Adimen Artifizialaren bidez.**

 **Fondoak Eskuratzeko Kontsolidazio Plana abian jartzea.**

 **Boluntariotzarako Estrategia Plan berria bultzatu eta garatzea.**

 **Aliantza indartzea Europako Gizarte Fondoarekin, Poises eta Poej programen kudeaketa bikainaren bidez.**

Ilunionen kasuan, hauexek dira 2020rako helburu nagusiak:

- **Plantillan desgaitasuna duten langileen kopurua eta ehunekoa handitzea.**
- **Aniztasun eta Berdintasun Plana garatzea desgaitasuna zeharkako gai izanda.**
- **Ilunion inklusio eta errentagarritasun ekonomikoko gizarte-eredu gisa posizionatzen laguntzea. Erreferente izatea aniztasun eta inklusioaren arloan.**
- **Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen kontratazioa sustatzea konpainia guztietan.**
- **Eraldaketa ez da aukera bat, betebehar bat da, eta eraldaketa digitalean eta gure negozioak aldatzen aurrera egiten jarraituko dugu.**
- **Bezeroen asebetetze-maila aztertzea Ilunionen, eta, halaber, Bezero-arloko Esperientzia eraldaketarako funtsezko oinarri izango duen proiektu bat zehaztea.**
- **Bikaintasunaren aldeko apustu etengabea, bide bakarra da.**
- **Gure korporazio-zentroaren Bikaintasunerako Ibilbide Orria, 2020-2022 epealdirako, definitzea, 2020ko otsailean egindako EFQM ebaluazioa oinarri hartuta.**

- **Arlo korporatibo berri, lehiakor, moderno eta errentagarri bat sendotzea, negozioei zein merkatuari begira erreferente izango dena, baita Ilunionen balioen enbaxadore ere.**
- **2020ren amaierarako abian jarriak izango dira ESK arloko proiektu guztiak: Gobernantza, Ingurumen Konpromisoa, Giza Eskubideak eta Reporting-a.**
- **World Blindness Summit dela eta, Ilunion Lab, eta Gizarte Ekintza eta Boluntariotza proiektuak definitzen egingo dugu aurrera.**
- **Ekonomia Inklusiboa proiektua garatuko dugu, iraunkortasunak Espainian duen errealitatearen mapan Ilunionen posizionamendu publikorako aurrerapauso bat.**



Ganorazko txosten bat

Laburpen Exekutibo Integratu hau prestatzeko aintzat hartu dira ONCE Gizarte Taldearen hiru arlo exekutiboek (ONCE, ONCE Fundazioa eta Ilunion), nork bere aldetik, prestatzen dituzten Informazio Ez-Finantzarioari eta Aniztasunari buruzko Egoera-orriak, zeintzuek arloen ekintzen xehetasunak azaltzen baitituzte eta laburpen honetan batzen baitira.

Egoera-orri guztiak egiaztatu dira, salbuespenik gabeko txosten baten bidez, eta prestatu dira informazio ez-finantzarioari eta aniztasunari buruzko abenduaren 28ko 11/2018 Legea eta iraunkortasun-memoriak idazteko Global Reporting initiative-ren Gidaren jarraibideak betez.

Informazio ez-finantzarioari buruzko gida hori egiteko alde aurretik materialtasun-analisi bat behar da, non agerian jarriko baitira Erakundearentzat garrantzitsuak diren eta intereseko taldeek erabakiak hartzeko eragina izan dezaketen alderdi ekonomiko, sozial eta ingurumenekoak.

Erakundearen hiru arlo exekutiboek jaso dute erakundearen adostasun-zigilua, zeinak ziurtatzen baitu txostenetan bildutako informazioak batzen dituela materialtasun-azterlanak erakundearentzat alderdi garrantzitsutzat jotakoak.

ONCE Gizarte Taldeak gizarte-erantzukizunarekin duen konpromisoari buruzko informazio gehiagorako, egoera-orriak eta dagozkien egiaztapen-txostenak kontsultatu daitezke www.once.es, www.fundaciononce.es eta www.ilunion.es webguneetan.







Berdinak

Gaurko. Biharko.



ONCE gizarte-taldea

